

Herririk Herri |4|

Desanexioaren 20. urtemuga gogoratu dute lurretako Udaletxe aurrean

Ekonomia |10|

Sindikatuak oso ontzat jo dute martitzeneko grebaren jarraipena



Berbaz |9|

Xabier Amuriza: "Euskaraz egunero diharduenak soluzioak behar ditu"

Mendezek adierazpen askatasuna argudiatu du bere defentsan

Berriz • Asturiasko printze-printzesak Bilbon zirela, monarkiaren kontrako adierazpenak oihukatzearen atxilotu zuten martitzenean, eta hurrengo egunean libre utzi zuten. Atxilotetan jaso zuen "tratuagatik" salaketa jarriko duela azaldu du Berrizko PSE-EEko zinegotziak.

4

Merkataritza Biziberritzeko Plana martxan ipini dute

Durango • Herriko merkataritza aztertu ondoren, planak berau suspertzeko ekintza zehatzak batzen ditu. Proiektua gauzatzeko plangintza osatuko dute. "Lehentasunak zehaztu" beharko dituztela adierazi zuen Aitziber Irigoras alkateak martitzeneko udalbatzarrean.

3

Durangaldeko Bertsolari Txapelketa finalera heldu da

KULTURA • Lazkano, Amuriza, Sololuze, Uruburu, Abasolo eta Ugarte-
txea igoko dira, zapatuan 18:00etan, Berrizko frontoiko oholtza gainera.

12

Nazioarteko Quad Txapelketa ekainean

KIROLAK • Ekainaren 12an eta 13an Nazioarteko II. Quad Txapelketa izango da Traña-Matienan. 20.000 metro karratutan hainbat zirkuitu atonduko dituzte. Quad mundua ezagutaraztea ere badute helburu, eta horretarako askotariko ekintzak antolatuko dituzte: 48 standez osatutako Erdi Aroko Azoka, besteak beste.

24

•Elorrio

Udaleku eta kanpamendu eskaintza gazteentzat

6

•Iurreta

ADIFen kontrako salaketa jarri du lurretako herritar talde batek

2

•Durango

Mugarri Eguna domekan

3

Txirrindularirik onenak Emakumeen Biran

> Datorren ekainaren 10etik 13ra izango den Emakumeen Bira aurkeztu dute asteon

> Arndt, Haulser, Cooke edo Cromwell lako eliteko txirrindulariak bilduko ditu

24



Emakumeen Bira kirol elkarteak lurretako Udalean egin zuen biraren aurkezpena, eguaztenean. Juanra de la Cruz



HERRIRIK HERRI >

DIURRETA

1990eko gestora omendu dute desanexioaren 20. urteurrenean

Instituzioetako ordezkariak gainera, abesbatzak eta dantza taldeak ere hartu zuten parte ekitaldian

Dozenaka herritar batu zen martitzenean Udaletxe aurrean, Iurretak udalerriz atera berreskuratu zuenetik 20 urte pasatu direla gogoratzeko ekitaldian. Herriko zinegotziak eta Durangoko hainbat ordezkari izan ziren bertan; Ana Madariaga Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak ere parte hartu zuen.

Iñaki Totorikaguena alkatea izan zen lehenengoa berba hartzen. Iurreta, "ilusioz eta gogoz etorkizunari begira dagoen herria"

Iurreta "ilusioz eta gogoz, etorkizunari begira dagoen herria" dela esan zuen alkateak

dela azpimarratu zuen. Atzera begiratu, "lehenengo gestorako kideak omendu" gura izan zituen, baita "une hau heldu ahal izateko, aurreko urteetan lanean aritutako jende guztia". Udala eratu ondorengo zinegotzi guztiak eta lehen alkatea ere oroitu zituen.

Ana Madariagaren txanda heldu zen gero. Udalerriz burujabe izatearen 20. urteurrenera gonbidatzea eskertu zuen, eta zera gai-

neratu: "Egia esan, ez zuen zertan galdu behar izaera hori 1926an".

Omenduak

Jose Martin Etxebarria, Bernardo Mardaras, Fernando Uribe, Nerea Albizuri, Aitor Astigarraga, Mikel Sopelana, Anton Mari Aldekoa-Otalora, Mari Carmen Muñoz, Marian Muñoz, Mauricio García, Isidro Gorrotxategi, Jose María Duñabeitia eta Jose Miguel Ortuzar jendaurrera irten eta oroigarri bana emanda omendu zituzten. Aldekoa-Otalora mikrofonora hurreratu zen, eta adierazi zuen "1926an, *legalidad vigentegaz* anexionatu zutela Iurreta Durangora, eta azken urteotako *legalidad vigentegaz* ere, zinegotzi izan beharko luketen batzuk udaletxetik kanpora" daudela. Baina, "pozten direla Batasuneko ilegalok" ekitaldira gonbidatuak izan zirelako. Euren oparia "zinegotzi ilegalei" eskaini zien.

Mikel Deuna abesbatzak eta dantza taldeak saio bana eskaini zuten, hizlarien artean. Gero, Gerediagako Jon Irazabalek berbaldua eskaini zuen desanexioaren historia azalduz. Ekitaldia luntzagaz amaitu zen. ■ M.O.



Udaletxe aurrean ospatu zuten desanexioa gogoratzeko ekitaldia. Juanra de La Cruz

Primo de Riveraren diktaduran lotu zuten Iurreta Durangora

Historian zehar soka luzea daukan arazoa da Iurretak legez beste hainbat elizatek ere bizi izan zuten: espazio fisiko murrizta zuten uri handiagoek aldameneko herri txikiak bereganatu gura izatea orain mende askoko kontua dela gogora ekarri du Jon Irazabal historialariak. Irazabalen berbetan, Primo de

Riveraren diktadupean, 1924an onartu zuten Udalerriz Estatuaren oinarrituta anexionatu zuten 1926an Iurreta Durangora. Madril lako hiriburu handiek ere euren zabalkunderako baliatu omen zuten lege hura, Irazabalek dioenez. Bilbok ere horrela bereganatu ei zituen Begoña, Lutxana eta Deustu.

Anexioaren urte horretan, 1926an, gaiaren inguruko erreferenduma egin zedila eskatu zuten, Irazabalek gogora ekarri duenez, 249 iurretarek (hiru urte lehenago erroldan 267 biztanle ageri zirela kontuan hartuta, ia herri osoak).

Ondoren, II. Errepublikaren garaian ere Durangotik banatzea eskatu zuten iurretarek, baina Francoren heriotzagaz hartu zuten desanexioaren aldeko aldarrikapenak indar gehien, 1975. urtean: 1926ko anexio garaian baserri-giroko herri zena ehunka langile etorkinen bizileku bilakatua zen ordurako. ■ I.E.

Enpresa eraikitzailearen eta ADIFen kontrako salaketa

Orozketan, zabortezi izandako Iurretan egiten dabiltzan lanak "Ingurumen Sailaren beharrezko baimenik barik" egin zituztela salatu dute epaitegian

Abiadura Handiko Trenaren Durango eta Zornotza bitarteko zatian, Iurretako Orozketa auzoan trenaren ibilbidea egokitzeko eta bertan zabortezi bat ipintzeko obrak "Eusko Jaurlaritzaren beharrezko baimenik barik" egin zituztela salatu du herritar talde batek.

Durangoko Epaitegietan aurkeztu dute AHTaren lanak burutzen diharduen ADIFen zuzendariaren eta enpresa eraikitzailearen kontrako salaketa, asteon.

Obrak hasi zituzten Iurretan zabortezi bat egon zenez lehenago, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 11/2005 legean jasotako baldintzak bete

Lur horietan zabortezi bat egon zen lehenago, eta bertan lur-mugimenduak egiteko baimen bereziak behar dira

"Lixiba eta metal pisutsuekin kutsatutako lokatzak Kataño errekastora isuri zituzten"

behar zituzten lur-mugimenduak hasi orduko, eta lurrak mugitzeko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren baimen bereziak behar zituzten arren, "ADIFek kontratatutako enpresak inongo baimenik barik ekin zion lurrak mugitzeari". Denuntzia-egileen arabera, "metal pisutsuekin eta lixibagaz kutsatutako lokatzak zuzenean Kataño errekastora isuri zituzten", eta egindako lur-mugimenduen ondorioz, "mendi magal osoa behera etortzeko arriskua" dago.

Asteon bidalitako oharrean, herritarren salaketagaz bategiten duela jakinarazi du Durangaldeko AHT Gelditu Elkarlanak. ■ I.E.

ATXONDO

Datorren astean hasiko da Anbotope elkartearen kontrako epaiketa

Eguaztenean, Durangoko epaitegietan izango dira Atxondoko Udaleko ordezkariak eta Arrazolako Anbotope elkarteak. Duela ia urte bi Udalak Anbotoperi lokala uzteko jarri zion kalera demandatik epaiketa edukiko dute.

30 urte eta gero, Anbotoperi Udalgaz zeukan kontratua amaitu zitzaion, eta lokala utzi behar zuela erabaki zuen Udalak 2008an. Elkarteak kideek ez zuten lokala utzi; Udalak kalera zeko aginduan akatsak egin zituela-eta, administrazioagazko helegitea jarri zuten. Udalak, elkarteak lokala utzi ez zuenez, demanda jarri zion Anbotoperi.

Epaiketa bi daude, beraz, egiteko. Anbotoperen kontrako demandarena eguaztenean hasiko da.

Atxondoko alkate David Cobosen arabera, "epaileak kalera jakinarazpenean akatsen bat ikusten badu ere, txarto egindakoa konpondu eta elkarteak lokala utzi beharko du". Anbotopeko kideek aurrera jarraituko dutela adierazi dute: "Gure elkarteak funtzio soziala dauka eta justuen gurek lokalean jarraitzea da". ■ A.U.

Anbotopek Udalariz jarri zion helegitearen gaineko epaiketa ere laster izango da



DURANGO

AHTaren igerileku ondoko lanak geratuko dituzte uda denboran

Durango biziaren igerilekue-tako bainu denboraldia "bete-bete gozatu" dezaten ADIFek "neurriak hartuko" dituela jakinarazi du, asteon, Mikel Cabieces Espainiako Gobernuak EAEn duen delegatuak. Horretarako, azpiegituren inguruan eraikitzen dabil-tzan "Mañaria biaduktuko lanak geratu" egingo dituzte.

ADIFek aparkaleku bat egiteko konpromisoa hartu du, oraingoa erabiltzeko moduan ipini arte

572 metroko biaduktua eraikitzeko lanen exekuzio plana moldatuko dute, "lanek edo garraio pisutsuak igerilekuen erabiltzaileak ez kaltetzeko". Bitartean, lanak biaduktaren punturik urruner-nera tokialdatuko dituzte.

Bestalde, lanen ondorioz igeri-riku ondoko aparkalekua hartu dutenez, "hura berriro erabilgarri ipini bitartean ADIFek beste bat atontzeko konpromisoa hartu du Udalagaz". ■ J.D.

Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia onartu dute

Plana gauzatzeko "lehenetsunak zehaztu" beharko dituztela adierazi zuen Aitziber Irigoras alkateak

Martitzenean udalbatzarra izan zuten Durangon, eta bertan Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia onartu zuten aho batez. Herriko merkataritzaren egoera aztertu ondoren, Planak berau suspertzeko ekintza zehatzak jasotzen ditu.

Plana aurkeztu zenetik onartu den arte denbora lar joan dela salatu zuen PSE-EEK

Aitziber Irigorasek azaldu zenez, plana zelan garatu zehazteko batzar bi egin dituzte — alderdietako zinegotzi, elkarteeko ordezkari eta hainbat arlotako teknikariek osatutako mahaia — eta bateratu, zehaztu eta finkatu beharreko osagai asko-gaz aurkitu dira. Horregatik, Plana udalbatzarrean ekarri dute,


"baina aurrerantzean errealitate-ramateko plangintza bat gauzatu beharko dugu, lehenetsunak zehaztuz", diote.

Aralarrek merkataritza plana eta berorren garapena "zeharka-kotasunaren bidetik" eman behar dela adierazi zuen. Plana kudeatuko duen mahaian Hirigintza Batzordeko kide bat egotea beharrezko ikusten du.

PSE-EEK plana komertzioaren indarberritzerako "erreminta inportantea" dela adierazi zuen. Lehenengoz aurkeztu zenetik onartua izan den arte, "denbora lar" joan dela ere salatu zuen.

Amaitzeko, PP alderdiak planagaz "guztiz ados" daudela esan eta berau garatzeko "gogor" lan egiteko deia luzatu zuen.

Talde Mistoak maiatzaren 25eko greba deialdiagaz bat egin zuen, eta ez zuten udalbatzarrean parte hartu. ■ J.D.



Sei ildo estrategiko jaso dituzte planean merkataritza indartzeko.

Andaluziako dantzak eta kultura Landako Gunean

Lehenago ezin eta asteburu honetarako antolatu du 'Apirileko Azoka' Andaluziako Kultur Zentroak



20 urtetik gora daramate jaialdi hau antolatzen.

Larunbatean eta domekan Andaluziako dantzak eta kultura ezagutzeko aukera dago Landako Erakustazokan. Bihar 12:00etan irekiko dute Apirileko Azoka. Bazkaritara batu aurretik, Durango Andaluziako Kultur Zentroko abesbatzaren saioa izango da.

Arratsaldean, 18:00etan, talde gonbidatu bik saioak egingo dituzte: Ermuko Andaluziar Kultur Zentroak eta Errenteriako Concha Ronciera taldeak, hain zuzen ere. Segidan dantza tailerra eta Onda Futuraren dantzaldiak izango dira. Gauean, 23:00etan, Azahar taldearen kontzertuak girotuko du Landako. Azahar talde abadiñarra da, eta Ermua, Bergara, Eibar eta Miranda de Ebroko kideak ere baditu.

Domekan, 12:00etan, soineko flamenkoen erakustaldia antolatu dute. Arratsaldean, 17:00etan, Abadiño De Norte A Sur eta Irungo Embrujo Andaluz taldeek dantza saioa eskainiko dute. ■ J.D.

Durango eta Iurreta banatzen dituen mugarriak bisitatuko dituzte bihar

Alpino mendizale taldeak, Udalaren laguntzagaz, Mugarri Eguna antolatu du zapatu honetarako

Aurten 11. aldia beteko du Mugarri Eguna. Urtero Alpino mendizale taldeak, Udalaren laguntzagaz, Durango mugakide dituen herrien arteko mugarriak bisitatu ohi dituzte.

Goizeko 09:00etan jarri dute hitzordua Andra Mariko elizpean. Edizio honetan Durango eta Iurreta banatzen dituen mugarrietatik hogeita zortzi ikusiko dituzte. Ibilbidea Arrioletxe baserrira doan bidean hasiko da, Orozketarako aldapan. Udal urandelatik eta Larrinagaxutik Lan-

dako kiroldegira joango dira, mugarriak aurkituz.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bost ordu inguruan burutu daitekeen ibilbidea da. Izena emateko azken eguna maiatzaren 28a da, Pinondo Etxean. Izena ematen duten guztiei txartel bat banatuko diete. ■ J.D.

Arrioletxe baserrira doan bidean hasiko dute ibilbidea, eta Larrinagaxura joango dira

A. Urreta
podología

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga
PODOLÓGIA 188. Ekaragokidea

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

BERRIZ

Mendezek "eskubide demokratikoen defentsa" eskatu du

Koldo Mendez Berrizko PSE-EEko zinegotzia Ertzaintzaren aukako salaketa prestatzen dabil



Koldo Mendez, Berrizko PSE-EEko zinegotzia.

Koldo Mendez Berrizko PSE-EEko zinegotzia martitzen atxilotu zuten, Bilbon, Asturiasko printze-printzesak iraintzea egotzita. Eguazten goizaldean askatu zuten.

Mendezek adierazi duenez, "gora errepublika!", "monarkia frankista" eta "herri honek memoria historikoa dauka" oihukatu zuen asteartean, Felipe Borboikoa eta Letizia Ortiz Bilbora heldu zirenean, Novia Salcedo fundazioak antolatutako lan integratuzioak antolatutako lan integratuzioak sari banaketa zela-eta. "Herriar moduan dudana adierazpen askatasunaren eskubidea erabili nuen, edozein instituzio demokratikok onartuko lukeena".

Monarkiaren aurka protesta egiten zebilela atxilotu zuten ertzainek Koldo Mendez. Zinegotziak azaldu duenez, "ertzainek jo egin ninduten", eta "euren esku hartzeak ez zeukan ezer demokratikotik". Atxilotetan jaso zuen "tratuagatik"

Printze-printzesak iraintzea egotzita atxilotu zuten Mendez, asteartean, Bilbon

salaketa ipiniko duela iragarri du. Izan ere, zinegotziak adierazi duenez, "Basurtuko ospitalera eroan ninduten, sorbaldan desblokeatuta daukat, eta belaunak zaurituta ditut".

Berrizen PSE-EEren zinegotzi izateaz gainera, EAeko Langile eta Profesional Autonomoen Batasuneko idazkaria ere bada. Zinegotziak azaldu duenez, "ez diot inori nire iritziekin bat egiteko eskatzen, baina bai nire alderdi, sindikatu eta agente demokratiko guztiei nire eskubide demokratikoak defendatu ditzaten".

Jose Antonio Pastor, PSE-EEren bozeramaileak irainak "gogor" gaitzetsi ditu

Irainak gogor gaitzetsi ditu Jose Antonio Pastor PSE-EEren bozeramaileak, eta hori ezin dela "jarrera demokratiko batez" uztartu esan du. Batzorde Eragileak premiazko bilerara deituko duela esan du, eta alderdiak "berezko neurriak" hartuko dituela.

Komunikabide batzuetan Mendez ahotan jarritako irainak gezurtatu ditu zinegotziak. ■ G.A.

Eskola mailako foroa nobedade Ingurumen Jardunaldietan

Berrizko Udalak Ingurumen Jardunaldiak antolatu ditu, maiatzaren 26tik ekainaren 12ra, ekainaren 5ean izango den Ingurumenaren Nazioarteko Egunagaz bat eginez. Aurten nobedadea eskola mailako foroa izango da. Foroa Udaletxean egingo da, maiatzaren 31n, 9:30ean hasita. Aurten go ikasturtean Eskola Agenda 21 ekimenaren barruan 'Kontsumo iraunkorra' eta 'Bidezko merkataritza' gaiak hartuko dituzte ardatz. 2006. urtetik ikastetxean kontsumoa ahalik eta gehien murrizteko saiakera egin eta bitartekoak jarri dituzte.

Mendi irteera eta erreka garbitzea ere egingo dute. Kiroldegian eman behar da izena. ■ G.A.

Mendi-irteera eta erreka garbitzea ere egingo dute. Izen-ematea, kiroldegian

ZALDIBAR

Emakumearen osasunari buruzko jardunaldiak Zaldibarren

Zaldibarko Udalak bat egin du gaurospatzen den Emakumearen Osasunari Buruzko Nazioarteko Egunagaz eta Emakumearen Osasunari Buruzko I. jardunaldiak antolatu ditu. Gaur, arratsaldeko 17:00etan, Antonio Ruiz Zaldibar-ko Ospitaleko Psikiatrak *La depresión en las mujeres: factores y prevención* hitzaldia emango du liburutegi zaharrean. Berdintasun

teknikariak ezagutzera eman duenez, emakumeak etxetik kanpora eta etxean duten gainkargaz, pentsio oso baxuak dituzten alargunen bakardadea bizitza soziala egiteko baliabiderik ezaz, sakrifizioan oinarritutako hezkuntzaz... horri guztiari buruz hitz egingo dute bertaratuak.

Atzo beste hitzaldi bat egin zuten Murgibe Berdintasun aholkularitzaren eskutik: *Del cuidado de las mujeres*; zaintzari buruzko kontzeptu osasungarriagoa izateko gomendioak, laguntza eskaintzen duten tailerak eta norberak bere ongizatea ere bilatu behar duela mahai-gai-nean jarri zituzten. ■ G.A.

OTXANDIO

Gaztetxoen artean futbola sustatzeko txapelketa bihar

Iazko arrakastak bultzatuta, Vulcano futbol taldeak benjamin eta kimu mailako futbol 7 txapelketa antolatu du, bihar, 10:00etatik 13:30era, Zelaietan. Vulcano, Durangoko Jesuitak, Areatza, Artea eta Igoerreko taldeak lehiatuko dira.

Ondoren, errifaren zozketa eta trikopoteoa egingo dituzte, eta kiroldegian batuko dira herri-bazkarian. 20:00etan, herriko plazan falta jaurtiketa txapelketa izango da. Santamafetan ere antolatu izan dute txapelketa hori. ■ J.D.



Iaz antolatu zuten lehenengo biderrez futbol 7 txapelketa.

mugarri eguna 2010



IRTEERA	SALIDA	Andra Mariako Elizpea <i>Pórtico de Santa María</i>
ORDUA	HORA	9.00
IRAUPENA	DURACIÓN	5 ordu / horas
IBILBIDEA	RECORRIDO	ORÓZKETA, ARRIÓLETXE, UDAL UR-ANDELA, LANDAKO POLIKIROLDÉGIA

IZEN EMATEA INSCRIPCIÓN
Izena ematerakoan bartel bat jasoko duzu | *Al inscribirte recoge tu ticket*
EPEA: maiatzaren 28ra arte | **PLAZO:** hasta el 28 de mayo

GAZTE INFORMAZIO BULEGOA
Pinondo Plaza, 1 T 94 603 00 30 informazioa@durango-udala.net www.durango-udala.net




LARUNBATA

29

SABADO

MAIATZA / MAYO

duran...go!

goazen!



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO ABADIÑO

BAUTISTA PROMOZIOAK SUKALDEAK ETA BAINUGELAK



HILABETEKO DOAKO FINANTZIAZIOA

Udaberria da urteko sasoirik onena zure sukaldea edo zure bainugela berritzeko eta Bautistak are errazago jartzen dizu

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3. irteera) | Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2. pabiloia: ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

PROMOZIO HONEK FINANTZA-ERAKUNDEAREN ONESPENA BEHAR DU ETX 2010eko ELAINAREN 30a ARTE DAGO INDARREAN

ELORRIO

Udaleku eta kanpamenduen eskaintza zabala dakar Uztaila Oparo ekimenak

Udalak antolatu dituen udalekuetan izena emateko epea maiatzaren 31n amaituko da

Udalak zein herriko hainbat elkartek osatu dute aurten ere Uztaila Oparo ekimena. Udalak antolatu eta Berbarok kudeatuko dituen herri-kanpamenduetan izena emateko azken eguna hilaren 31 da; Iturrin, Udaletxean zein Euskara Zerbitzuan. Kanpamendu bi antolatuko dituzte uztailaren 3-12 urte artekoentzat. Txintxirik ekainaren 24tik uztailaren 2ra antolatuko ditu udaleku irekiak ikastolan bertan, 3-5 urte artekoentzat. 10 ume-ko taldeak osatuko dituzte. Lourdesko Ama Ikastetxearen herri-

kanpamendu irekirako ekainaren 18ra arte eman daiteke izena: lourdeskoama@hotmail.com; Uztailaren 1etik 28ra garatuko dute eta 190 euro izango da.

Intxorta asti taldearen kanpamendu finkoa Lakuntzan da (Nafarroa), eta 6-17 urte artekoek zuzenduta dago. Ekainaren 11n (18:00-19:00), 14an (19:00-20:00) eta 16an (19:00-20:30) eman daiteke izena euren lokalean.

Elorrio Yes-ek ekainaren 28tik uztailaren 12ra astialdia eta ingeles batuko ditu. Izen-ematea ekainaren 18ra artekoa da. ■ J.D.



Udalaren udalekuetarako, oraingoz, 155 gaztetxok eman dute izena.

Balkoien eta etxaurreen lehenengo lore-apainketa lehiaketa



Elorrioko Merkatarien Elkartek balkoien eta etxaurreen lore apainketa lehenengo lehiaketa antolatu du. Marimar merterian eta Orbela loradendan 20 lagunek eman dute izena. Irabazleak 400 euro jasoko ditu, bigarrenak 300 euro eta hirugarrenak 200. Lore guztiak naturalak izan beharko dute. Epaimahaia elkarteko zuzendaritzako kideek osatuko dute, eta irabazlearen izena uztailaren 4tik aurrera jakinaraziko dute. ■ J.D.

Bost hilerako hiri agente bi hartu dituzte

Durungaldeko Amankomunazgoaren egitasmo bat aprobetxatuz, Elorrioko Udalak hiri-agente bi kontratatu ditu. Bost hila-beterako hartu dituzte eta ekainaren 1ean, martitzenean, hasiko dira lanean. Ordutegia 08:30etik 13:30era artekoa da. Udaletik jakinarazi dutenez langile biak ez dira Elorrio bertakoak, baina bai Durungaldekoak.

Agente bi horien lana giza-bidezkoak ez diren ekintzak identifikatzea eta herritarra bere jokabide horretaz ohartaraztea izango da. Batez ere, aparkalekuen erabilera okerra zaindu beharko dute, eta baita txakurren jabeek arauen barruan diharduten ere. Azken kontu honekin sentsibilizazio kanpaina bat ere egingo dute. ■ J.D.

Lur-jabeak AHTko aktak sinatzera deituta

Eguaztenean eta eguenean AHTaren tramu bateko (Iguriako zonaldekoa) aktak sinatzera deitu zituzten 40 lurjabe. Goizeko 09:00etatik arratsaldeko 18:00 arte banatu zuten akten sinaketa. Elorrioko Udala ere deituta zegoen, zonalde hartako lurzati batzuen jabe moduan.

ADIFeko ordezkariak etorri ziren, baina Niko Moreno alkathea ez zen izan. Ondorioz, sineketak ez ziren gauzatu. Baliteke ADIFen hurrengo deialdia Bilbon izatea. Elorrioko beste tramu batekin horixe egin zuten. ■ J.D.

Elorrioko Udala ere deituta zegoen Iguriako zonaldeko lurzati batzuen jabe moduan

GARAI

Olioia batzeko edukiontzia erabilera, martxa onean

Hiru bat aste pasatu dira San Migel plazan olioia batzeko edukiontzia ipini zutenetik, eta herritarrak hasi dira Udaletxera agertzen, ontzien bila. Dagoeneko, 29 pertsonak eskatu dute olioia gordetzeko ontzia.

Udaletik azaldu digutenez, "jendea gustura" dago instalazio berriagaz, eta "horrelakoren bat behar zela" azpimarratu ei dute hurreratu direnek. Lehenengo, ontzia udaletxean hartu behar dute herritarrek, eta behin beteta dagoenean edukiontzian sartu. Edukiontzia berak ematen ditu, automatikoki, erabilitakoen ordezkakoak. ■ M.O.

ERMUA

Umi

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA
Tel. 943 17 62 57
Faxa: 943 17 64 50
E-mail: uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Informatika Aplikazioen Garapena
- Informatika Sistemen Administrazioa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mikroinformatika-Sistematik eta sareak (A eta D ereduak)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Nazioarteko Merkataritza
- Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazio Kudeaketa
- Merkataritza

EIBAR

Umi

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR
Tel. 943 20 84 44 / Faxa: 943 20 31 96
E-mail: uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com

Aurrematrikula zikloak:
maiatzaren 31tik ekainaren 11ra
A eta D ereduetan



ABADIÑO

Muntsarazko lurpeko zaborrontzien gaia plenora eroan zuten auzotarrek

Zaborrontziak euren etxeetatik hurregi ipini dituztela salatu dute auzokoek



Astebetean eta erantzuteko astirik eman barik egin dituztela lanak diote auzotarrek.

Muntsarazko "Arlozabal plazako 1, 3, 5 eta 7 zenbakietako auzotarrak" izenpetutako idatzi batez hurreratu zen auzotar talde bat, eguaztenean, Udaleko osoko bilkurara: gutxieneko distantzia errespetatu barik, euren etxeetatik hiru metro baino gutxiagora ipini dituztela lurpeko zaborrontziak salatu zuten udalbatzarrean, eta "Udalak gaiari buruz ez duela bizilagunekin inolako komunikaziorik landu".

Bestalde, zaborrontziak lurperatzeko lanetan, ondoan kokatuta dauden gasaren txaboletan arra-

kalak eragin dituztelako, euren ardura adierazi zuten auzotarrek. Arlozabal plazako 1, 3, 5 eta 7 zenbakietako auzotarren eskaria, egingako zuloa estali eta zaborrontziak beste leku batean egitea dela azaldu zuten. Navarrok alkateak, euren eskaera laster erantzungo dutela esan zien, baina "gaitz" ikusten duela lekualdatzea.

Euren etxe ondoan etxebizitzak eraikitzen diharduen enpresak ordutegiak ez dituela errespetatzen, eta gauez zarata jasanezina eragiten duela ere salatu zuten plenora ekarritako idatzian. ■ I.E.

Arlozabal plazako 1, 3, 5 eta 7 zenbakietako auzotarren izenean sinatutako idatziagaz

Zaborrontziak ipintzeko lanen ondorioz gasaren txaboletan arrakalak agertu direla-eta, arduratuta daude auzotarrak

Errepresaliatuei elkartasuna adierazi guran, Askatu Rock

Maiatzaren 29an da hitzordua eta, besteak beste, Vendetta, Des-kontrol eta Iheskidek joko dute

Durangaldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatu duen ekimena da maiatzaren 29an musika eta aldarrikapena uzartuko dituen Askatu Rock izeneko. Plateruenean aurkeztu zuten, joan zen barikuan, ekimena.

Eztabaidak, enkartelada, herri-bazkaria eta kontzertuak egingo dituzte

"Eskubide zibil eta politikoen bortxaketa behin betiko amaitzea" dute aldarri

Euskal preso politikoei "babesa eta elkartasuna" erakusteko antolatu dute maiatzaren 29ko Abadiñoeko egitaraua. Aurkezpenean adierazi zuten, "errepresioak ez gaituela baldintzatuko" azpimarratzeko helburuagaz antolatu dute eguna.

Zapatuan 10:30ean dira eguneko lehenengo ekitaldiak: eztabaida gunea eta enkartelada burutuko dituzte, besteak beste. Ondoren, herri-bazkaria egingo dute, 14:30ean pilotalekuan. Arratsaldean, 18:30etik aurrera, bestetik, kontzertua eskainiko dute Durangaldeko hainbat taldek Gazte-txean. Ondoren, 21:00etan, Vendetta, Des-kontrol eta Iheskide taldeen kontzertuak izango dira probalekuan. DJ Txoren musikak emango dio jaiari jarraipena.

Eskubideen urraketa

"Eskubide zibil eta politikoen bortxaketa eten beharra" dagoela adierazi zuen aurkezpenean Durangaldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. "Presoek jasaten dituzten tortura, urrutzea eta eskubideen urraketak amaitzeko beharra eta bozkatzeko eta bozkatua izateko eskubidea zein adierazpen askatasunerako eskubidea" bermatzea eskatzen dute.

MALLABIA

Auzokideak eta Aldundia pasabideari buruz eztabaidatzen

Goita eta Gereaa auzoetako bizilagunek batzarra izan dute orain dela egun batzuk Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariekin. Auzotarren berbetan, "ez dutela diru-

rik Trabakuko pasabidea eraikitze-ko" azaldu die Itziar Garamendi herri lan diputatuak. Proiektua, baina, erredaktatuko dutela erantzun ziela gaineratu dute. Bizilagunek, bitartean, semaforo bat jartzeko eskatu zioten, baina N-633 foru errepidea izanda ezeko jaso zuten. Proiektuaren erredakzioan lur azpiko pasabidea kontuan hartzeko proposatu zioten, eta zubia eginez gero animaliendako ere izan dadila. ■ J.G.

AURREMATRIKULAZIO DATAK

Heziketa zikloak:
maiatzaren 31tik
ekainaren 11ra

- DBH (B eta D ereduak)
- GELA EGONKORRA (B eta D ereduak)
- BATXILERGOAK:
 - Arteak (D ereduak)
 - Giza eta Gizarte Zientziak (A eta D ereduak)
 - Zientziak eta Teknologia (A eta D ereduak):
Aukera: Hirueleduna ingelesez
- ZEREGIN IKASKUNTZARAKO GELA
- HEZIKETA ZIKLOAK
 - Erdi mailakoa:
Landa Inguruneko Gorputz eta Kirol Ekintzen Gidaritza (D ereduak)
 - Goi mailakoa:
Gorputz eta Kirol Jardueren Animazioa (D ereduak)

IES Frai Juan de Zumarraga - Durango BHI

Frai Juan de Zumarraga, 23
48200 DURANGO (Bizkaia)
Tel.: 94 657 10 60 - 94 681 73 25
Fax: 94 681 02 58
e-posta: info@durangokoinstitutua.com
web: www.durangokoinstitutua.com

DURANGALDEA



Marian Larrauri Amankomunazgoko lehendakaria eta Vicente Fernández medikua prentsaurrekoan.

Zigarroen truke bonboiak, Tabakorik Gabeko Egunean

Amankomunazgoak stand bat ipiniko du hilaren 31n Andra Mariko elizpean erretzaileak kontzientziatzeko

Amankomunazgoaren Drogomenpekotasunen Prebentziorako Zerbitzuak bat egingo du astelehenean Tabakorik Gabeko Munduko Egunagaz. Andra Mariko elizpean stand bat ipiniko dute, 11:00etatik 14:00etara, eta hainbat ekimen burutuko dituzte.

Esaterako, ekintza sinboliko moduan, erretzaileen artean bon-

boiak banatuko dituzte zigarroen truke. Horrez gainera, tabakoa erretzeari uzteko ikastaroen gaineko informazioa banatuko dute. Ikastaroak 10-20 laguneko taldeekin osatuko dituzte. Zazpi astetan, astean behin batu ohi dira, eta ikastaroa amaitu eta handik hiru hilabetera jarraipen-saioak egiten dituzte.

Aurtengo aldiak *Emakumea eta tabakoa* gaia jorratuko du, eta ekimenaren aurkezpenean Vicente Fernández medikuak hainbat datu eman zituen. Bere esanetan, "laster emakume erretzaileen tasa gizonezkoena baino handiagoa izango da". Esaterako, "unibertsitatean neskek tabako gehiago kontsumitzen dute mutilek baino". Ondorioz, laster "biriketako kantzerra izango da emakumearen hiltzeko lehenengo arrazoia". ■ J.D.

Tabakoa erretzeari uzteko ikastaroen gaineko informazioa banatuko dute, besteak beste

MAÑARIA

Olio erabilia birziklatzeko baliabideak ipini dituzte

Ontziak banatu dituzte etxeetan, erabilitako olio batzeko; eta edukiontzia ipini dute parkinean

Duela zenbait astetik dago etxean erabilitako olio birziklatzeko poteak batzeko edukiontzia parkinean. Herriko etxe guztietara, gainera, sukaldean erabili ahala olio gordetzeko poteak banatu dituzte, betetzen zaizkienean herritarrek edukiontzian hutsitu ditzaten.

Etxeko olio harraskatik botaz gero estolderia sisteman eragiten diren kalteak eta hondakin honek ingurumenean eragiten dituen kal-

teak ekiditea dira olio birziklatzearen helburuak.

Etxetik eroandako erabilitako olioagaz betetako ontzia parkinean dagoen edukiontzian sartu eta beste ontzi huts eta garbi bat jasoko dute erabiltzaileek. Horrela, hain kutsakorra den hondakina birziklatzeko erraztasunak eskura izanda, herritarrek birziklatzeko sistemara ohitu eta erabiltzea da orain jomuga. ■ I.E.

IZURTZA

Diru-laguntzak daudenean mantenduko ditu Udalak

Herriko kirol eta kultur elkarteak diruz laguntzeko daukan diru-poltsan murrizketarik ez egitea aurtun, beraz, orain arteko kopuruetan mantentzea onartu du Udalak. Gobernu Taldea zein oposizioan dauden jeltzaleak ere Udalaren diru-laguntzak daudenean mantentzearen alde agertu dira. Inguruko Udaletan diru-laguntzen jaitsiera orokorrak egitea erabaki badute, murrizketarik ez dute beharrezko ikusi Izurtzan. ■ I.E.

BERRIZ

Udalekuetan izena emateko aukera ekainaren 4ra arte

Uztailaren 5etik 23ra bitartean Berrizen egingo diren udaleku irekietarako izena emateko aukera dago maiatzaren 31tik ekainaren 4ra arte. Udalekuen prezioak iazko berberak izango direla eta Berrizen erroldatutako en egotaldia 55 eurokoa izango dela jakinarazi du, asteon, Berrizko Udalak.

Goizeko 09:30etik eguerdiko 13:30era izango da uztaileko udalekuen ordutegia, eta arratsaldeko 17:00etara luzatuko dute txangoak dituzten egunetan jarduna. Bi talde osatuko dituzte izena ematen dutenekin: 2005-2006 urteetan jaiotakoak bate-tik, eta Lehen Hezkuntzako sei mailatan daudenak bestetik.

Udalekuen programaren berri emateko, gurasoentzako bilera deitu dute, ekainaren 16an, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

Elkartasun ekimena ipini du Nualan Guneak martxan

Nualan con Sonrisas de Bombay lemapean, salmenta solidarioa egiteko kanpaina ipini dute Interneteko www.espacionualan.com webgunean martxan. Irailera bitartean, astero-astero bost produktu ipiniko dituzte euren webgunean salgai: Indian umeentzako eskolak sortzen laguntzen duen eta lepra gaixotasunaren kontra borrokatzeko ospitaleak eraikitzen dituen Sonrisas de Bombay gobernuz kanpoko erakundearen proiektuetara bideratuko ditu ekimenaren irabazi guztiak Nualan Guneak.

Hiru urteko ibilibidea du espazio horrek eta, arduradunek ekimenaren berri emateko azaldu dutenez, "beti egon gara horrelako gizarte ekintzekin konprometituta, hasieratik". Besteak beste, artista berriei ere lekua egin izan diete euren gunean.

Ituna sinatu dute Maristak eta Lourdesko Ama ikastetxeek



Hitzarmen honi esker Lourdesko Ama ikastetxeko ikasleek ziurtatuta dute toki bat Durangoko Maristetan. Ikasturtean zehar, DBH 3. eta 4. mailakoek gerora begira ondo aukeratzeko zenbait praktika egiteko aukera izango dute Maristetako geletan.

Itunaren helburuen artean daude zerbitzuak gehitu eta hobetzea, bertako ikasle, familia eta langileek dituzten beharrei hobeto erantzutea, ikastetxe bakoitzaren emaitzak hobetzea, kalitateagaz lotutako proiektuetan aurrera egitea, eta ikastetxeko langileen kompetentziak hobetzea. Gainera, Elorrioko ikasleek garraioa doan izango dute. "Hitzarmenak ikastetxe bakoitzak jorratzen dituen hainbat atal asko zabalduko ditu; dena ikasleen formazioa hobetzera bideratuta dago", diote.

AC/DC

San Mames zelaian!

Zu izan al zara irabazlea?
Kontsultatu:

www.anboto.org

webgunean

Alluitz, 3 behea
Durango
Tel.: 94 603 27 50
www.rockizarra.com

BERBAZ >

“Euskara ezin badugu erraz erabili, tresna horrek ez du balio”

Euskara batuagaz daukagun hainbat arazorentzat “soluzio txikiak” proposatu ditu Xabier Amurizak azken liburuan

Proposamen zehatzak batu ditu Xabier Amurizak ‘Osoa, lehiakorra, nazionala. Euskara batuaren bigarren jaiotza’ liburuan. Amurizak argi dauka hizkuntza erraz erabiltzeko tresna izan behar dela.

Liburuko tituluan diozun legez, bigarren jaiotza bat behar du euskara batuak?

Zelanbait esateko modua da, baina bai: baietz uste dut. Horrek ez du esan gura hutsetik jaioko denik, baina irizpide batzuk aldatu beharra ikusten dut, eta horretara dator liburua. Proposamen batzuk egiten ditut. Ez dago teoria askorik, oso praktikoa da.

Hutsune batzukaipatzen dituzu, eta soluzioak ematen ahalegintzen zara.


Liburuaren eskaintzak hauxe dio: “Eguneroko lan tresna dutenen artean diskurtso handiak baino soluzio txiki bat nahiago duten guztiei”. Euskaragaz egunero lanean dabilenak tresnak eta soluzioak behar ditu, esan behar dituenak esateko moduak edukitzeko.

Beti zalantzan.

Dudak eta zalantzak edonork izan ditzake, baina gertatzen dena da euskaraz egiturei dagozkien hutsuneak dauzkagula, soluziorik bakoak, eta hori da larria. Erlatiboa, esaterako, egunero behar dugu, eta arazo asko izaten ditugu, egiturak falta zaizkigulako. Adibidez, ezin dugu esan “la persona con la que vivo”. Liburuan soluzioak proposatzen ditut. Askotan “euskaran horrelakorik ez dago” eta bakoitzak ahal duena egiteko esaten da, baina hori ezin dugu egin; euskararentzako egitura praktikoa eta errazak behar ditugu. Gure inguruko hizkuntzetan dauden egiturak guk ere behar ditugu.

Aditzen inguruan ere sakontzen duzu liburuan.

Aditzekin arazo handiak dauzkagu. Aditza elementu bat baino gehiago izaten da askotan. Adibidez “lloras” esateko “negar egiten duzu” erabiltzen dugu. Gure alboko hizkuntzetan silaba bigaz esaten dena, guk zazpigaz esaten dugu, eta hori askotan oztopoa da. Askotan gauzak labur esatea behar dugu; titularretan, esloganetan, pelikulak bikoizterakoan, abestiak egiterakoan... aditz luzeak gero eta gehiago erabiltzen ditugu, eta horrek asko mugatzen gaitu. Aditz trinkoak berreskuratzen hasi behar dugu. “Etorriko nintzateke” esan beharrean “nentorke” esan genezake. Horrelako formak galtzen



“Gure alboko hizkuntzetan dauden berbak, egiturak... guk ere behar ditugu”

gabilta. “Neroan” barik “eroaten nuen” esaten dugu, eta hori ez da hizkuntza aurreratuen martxa, alderantzizkoa baino.

Alboko hizkuntzetatik asko ikasi genezake, beraz.

Beste hizkuntzek euren egituretan dauzkaten abantailak guk ere izan behar ditugu. Gure buruan gutxienez hizkuntza bi dauzkagu, eta horrek arazoak sortzen dizkigu

“Aditzekin arazoak ditugu, forma luzeak erabiltzen ditugulako, eta trinkoak galdu”

barruan: Nik erderaz, beste hizkuntza batean, gauzak erraz eta ondo esan ahal baditut eta euskaraz ez, diglosia barruan daukat, eta ezin dut desoreka horregaz ibili; horrelako desabantailekin ezin naiz ibili. Hori ezin daiteke iruntzi. Besteen bizikletaren antzekoa behar dugu beste hizkuntzen parean joateko. Hainbat berba hartu ditugu alboko hizkuntzetatik. Egiturak ere, oso garrantzitsuak direnak, sortu, hartu

Xabier Amuriza •

Idazlea eta bertsolaria

- 69 urte ditu
- Euskararen inguruko hausnarketak batu ditu azken liburuan

edo konpondu egin beharko ditugu. Ezin dugu esan “bakoitzak ahal duena egin dezala”.

Lexikoa liburuaren beste atal bat da.

Gauza asko airean dauzkagu lexikoan. Sentsazio berba, adibidez, hiztegian badago, baina anbizio hitza ez. Handinahia agertuko zaigu, baina ez da berdina. Milaka berbagaz pasatzen zaigu hori. Liburuan irizpide batzuk proposatzen ditut, galdu ditugun berbak erreperatuzeko eta ez dauzkagunak nondik hartu edo sortu pentsatzeko. Daukagun kaos txiki horretatik iretzeko proposamenak dira. Gure inguruko hizkuntzek konpartitzen dituzten gauzak guk ere konpartitu beharko ditugu batzuetan.

Halako batean konplexu barik, zuzen eta jator, berba egiteko gai izango gara?

Hor jatorra zer den ere ikusi beharko dugu. Erabiltzen dugun tresna horrek balio ez badu jendeak egunero lanean erraz erabiltzeko, tresna horrek ez du balio. Zurruna eta gogorra da, ez da konpetitiboa, eta erdi ernegatuta ibiliko gara beti. Hori ez da hizkuntza batek aurrera osasuntsu egiteko modua, eta gutxiago beste motibo batzuegatik gure hizkuntza makaltasun sozialak jota dagoenean. Tresna gaitza bada, soluziorik ematen ez bada eta ez bada espresiboa, gaitz dauka. Gero erabilera beste gauza batzuek markatzen dute; gizarteak, balore sozialek, sentimenduek... Baina, gutxienez, tresnak erabilgarria eta eroso izan behar du, bestela, trabatu egiten garelako askotan, eta hori ez da ona. ■ A.U.

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Gehiengo sindikalak "oso ontzat" jo du eskualdean astearteko grebak izandako jarraipena. ELA sindikatuak adierazi duenez, herri handietan jarraipena handia izan zen; txikietan, berriz, %50 ingurukoa. Horrela, Durangoko Udaletxean %97k egin zuen greba, Iurretan %70 inguruk, eta Berrizen jarraipen handia izan zen; bestalde, Elorrion, Mañarian, Izurtzan edo Zaldibarren, esaterako, %50 inguruk egin zuten greba. ELAk dioenez, "hezkontza arloan jarraipena handia izan zen; Osakidetzan, aldiz, apala, zerbitzu minimoak gehiegizkoak zirelako."

Eskubide sozialak, zerbitzu publikoa, murrizketarik ez lelopean elkarretaratzeak egin zituzten, LABek Durangon eta ELAk Zornotzan. Sindikatuak adierazi dutenez, "zerbitzu publikoak ahultzeak gizarte osoan du eragina: gizarte osoaren greba da, ez bakarrik funtzionarioena". Mobilizazio hauek orain arteko "neurri atzerakoiei erantzuteko, etorkizunean etor daitezkeenei erantzuteko eta sistema politikoan aldaketa eskatzeko" egin dituzte. Gehiengo sindikalak ekainaren 12rako manifestazio nazionala deitu du Bilbon. ■ G.A.

Sindikatuak "oso ontzat" jo dute grebaren jarraipena

Sindikatuak adierazi dutenez, "zerbitzu publikoa ahultzeak gizarte osoan du eragina"



LABek astearte goizean Durangoko Andra Marin egin zuen elkarretaratzea.

Jantoki publikoetako negoziazioak "blokeatuta"

LAB sindikatuak dioenez, "lehen mahai gainean ipini zuen proposamen ekonomikoa atzera bota du enpresak"

Eskola publikoetako jantokietako beharginen eta enpresen arteko negoziazioak "blokeatuta" daudela adierazi du LAB sindikatuak ordezkariek: "Akordio batera iritsi ginen apirilaren 15ean. Enpresak proposamen ekonomikoa idatziz ipini zuen mahai gainean, baina maiatzaren 4an enpresak atzera bota zuen". Batzar egutegia ere bertan behera gelditu zela adierazi du sindikatuak. Enpresak proposamena bertan behera uztea "zuzeneko eraso" dela dio LABek eta, beraz, "mobilizatzea, gure

aldarrikapena kaleratzea eta gurasoen inplikazioa eskatzea" besterik ez dela geratzen. Lan gatazka hau Eusko Jaurlaritzaren "ardura" ere badela dio sindikatuak; "zer esan handia" daukala diote, eta "bermatzaile zeregina" hartu dezala exijitzen diote.

Lan gatazka luze doa: orain bi urte hasi ziren enpresa eta beharginak negoziaketekin. Aurtengo urtarilean grebak egin zituzten jangela publikoetan, baina martxoan egoera desblokeatu zuten. Orain "blokeatuta" dago. ■ G.A.

> DURANGO

Erraldek errekorra gainditu du hile honetan

Erralde hiltegiaren maiatzean 300 buru gehiago hil dituzte; "Zorrotzako hiltegia itxi izanak eragina izan du"

Erralde hiltegiak hilabete honetan errekorra gainditu du, Eneko Egibar Erraldeko gerenteak azaldu duenez. "Zorrotzako hiltegi-ko itxieraren ondorioz 300 buru gehiago hil ditugu hile honetan, guztira 950 izan dira" azaldu du, "eta ez dugu zerbitzuan arazorik eduki, oso ondo moldatu gara".

Hiltegi berria

Erraldeko hiltegi berria Berrizen, Eitua auzoan, eraikitze lanak

Eneko Egibar Erraldeko gerenteak azaldu duenez, "uda inguruan hasiko dituzte". Eraikina Berrizko lehengo zabortegiaren egongo da kokatuta. Eneko Egibar, Erraldeko gerenteak azaldu duenez, "proiektuak zortzi milioi euroko aurrekontua izango du".

Hiltegi berriak zatikatze gela, izozte tunela eta izozte ganbera izango ditu. Behi, ardi eta txerri aziendako buruak hilko dituzte hiltegi berrian. ■ G.A.

kolaborazioa



Ainhoa Iturbe
EHNE sindikatua

Ludikoak

Arraro samar suerta dakioko norbaiti sozioekonomia orrialde hauetan ludikoari buruz hitz egitea. Batzuei arraro samar egingo zaie nekazaritza bera sozioekonomian sartzea. Azken finean, baserritarrok hori besterik ez gara askorentzat: baserritarrak; ez dute inoiz pentsatu gu ere langileak garela, gurea ogibi-dea dela, ez beraien umetako oroimenaren atal bukoliko bat bakarrik.

Antza arraro samar gertatzen zaio hainbat instituzio eta mendi-nekazaritza elkarteri ere gudan, baserriarrongan, lan iturburu bezala pentsatzea. Hori dela-eta, hain zuzen hortxe bertan, Iturburrun, Iurretan, hainbat ortu ludiko ipintzekotan dira. Orain arte, antza, ludikoa izan ez den lur batzuetan.

Antza, arraro egiten zaio hainbati baserriarrongan lan iturburu ikustea

Oso ideia polita, eskualdeko nekazaritza hain egoera paradisiakoan bizi denez, 149.300 euro ortu ludiko batzuk ipintzeko. Hori bai, umek eskolatan jaten duten jatekoari buruz txintik ere ez, nagusiek egoitzetan jaten dutenaren jatorriari buruz isiltasuna, eta desagertzen ari den lehen sektoreari burla etengabea.

Eskualdeko landa lurrentzat Foru Aldundiak dituen asmoak ikusita, mendi nekazaritza elkarrekin bultzatzen duen proiektu hau ikusita, udalek nekazariekin duten jarrera ikusita, ez al da ordua norbaitek argi eta garbi esateko baserriarrok sobera gaudela eskualde honetan? Behintzat, zintzo jokatu gurekin; aurka, baina zintzo.

Bitartean, zergatik ez automozio tailer ludikoak, irakasle ludikoak, abokatu bufete ludikoak, aroztegi ludikoak, optika ludikoak... denon diruagaz?

Oso ideia polita, nekazaritza hain egoera paradisiakoan egonda, ortu ludikoak sortzea

Durangaldeko Baserriarren Elkarte

DIBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85

Hemen agertu gura baduzu

deitu!

94 621 79 02

KULTURA[>]



Argazkia: Kepa Aginako

ANTZERKIA > EMANALDIA

'Utopia' eta 'Jar dezagun mundua hankaz gora' antzezlanak

Barikuan lehenengo eta Durangoko Euskal Astearen ekitaldi legez zapatuan bigarrena, bi lan eskaini berri dituzte Kurutziaga ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ikasle-antzezleek: *Utopia* eta *Jar dezagun mundua hankaz gora*. Kanean egiteko sortutako antzezlan da *Utopia*, eta areto barrurako prestatutakoa *Jar dezagun mundua hankaz gora*. Biak ala biak, istorio beraren ingurukoak dira, Txoxe taldearen arduradunak azaldu duenez: "ametsetatik abiatuta, mundua aldatzeko irrikatik sortutako antzezlanak dira lan biak".

San Agustin kulturgunean hasita, Durangoko Alde Zaharrean

zehar kalejira egin zuen Kurutziaga ikastolako konpartsak asteburuan. Udaletxe parean eta Ezkurdi plazan egin zituzten goiko argazkiko moduko geldialdiak.

Zelako herri eta hirietan bizi gura luketen erakusten dute obra bietan Kurutziagako antzezleek. Goiko argazkian ikusgai dugun Udaletxeko emanaldian ere, euren utopiaren ideia hori aldarrikatu zuten antzezle gazteek inguruan batutako ikusleen aurrean. "Gauero amesten dugun mundua errealitate bilakatzea posible dela eta horretarako ez dugula inori bai-nenik eskatu beharrik" aldarrikatu zuten antzerkiaren bidez. Eguraldia lagun, Alde Zaharrean zebilen jende asko batu zitzairen. ■ I.E.

12 Organu berbaldi-kontzertua

Maiatzaren 28rako antolatu du Durangoko Arandoño kultur elkarteak 84 urteko Montserrat Torrent organujotzailearen San Frantzisko monastegiko emanaldia.



13 Iheskide Elorriko taldeagaz

Asteburuan Abadiñon egingo duten Askatu Rock jaialdian aurkeztuko du Iheskidek urte hasieran kaleratutako diskoa. Euregaz jardun dugu berbaz.

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

Durangaldeko Bertsolari Txapelketaren finala bihar

Berrizko frontoian jardungo dute Durangaldeko sei bertsolarik kantuan

Gorka Lazkano, Miren Amuriza, Julen Sololuze, Eñaut Uruburu, Eneko Abasolo "Abarkas" eta Beñat Ugartetxea bertsolariak arituko dira maiatzaren 29an, 18:00etan, Berrizko frontoian azken saioa duen Durangaldeko Bertsolari Txapelketan. Aurretik Mallabian eta Iurretako Oromiño auzoan jokatuakotako bi kanporaketetan puntu gehien jaso dituzten bertsolariak dira, beraz, eskualdeko txapela janzteko helburuagaz onena emango dutenak Berrizen bihar.

Lazkano, Amuriza,
Sololuze, Uruburu,
Abasolo eta Ugartetxea

Maite Berriozabalek eman dako gaiak jorratuko dituzte bihar bertsolariak, eta bertsozaleak gozarazteaz gainera, ahal beste puntu batzeko helburuagaz jardungo dute. Bizkaiko beste zazpi eskualdetako irabazleek legez, zapatuan Berrizen puntu gehien batzen dituen bertsolariak ere, udazkeneko Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako txartela lortuko du zuzenean, eta batzen dituzten puntuen arabera sailkatuko dira gainontzekoak. ■ I.E.



Entzule asko batu zen orain urte biko Garaiko finalean. J.F.

MUSIKA > KONTZERTUA

Montserrat Torrentegaz berbaldi-kontzertua antolatu du Arandoñok

Aurretik Durangon beste emanaldi bi eskaini ditu 84 urteko organu-jotzaile kataluniarrak

Durangoko Kurutzia hotelan egin du Aradoño kultur elkarteak maiatzaren 28an lehenengoz egingo duten "solasaldi-kontzertuaren" aurkezpena. Ibilbide luze eta oparoko organu-jotzailea gonbidatu dute bertara: 1996an Musikaren Sari Nazionala jaso zuen Montserrat Torrent kataluniarra.

Formatu bereziko kontzertua eskainiko du Torrentek, maiatzaren 28an, 20:15ean, San Frantzisko monastegian; bere bizitza eta obrari buruzko solasaldia egingo dute lehenengo, eta kontzertua eskainiko du ondoren 84 urteko organu-jotzaile kataluniarrak.

Arandoño kultur elkarteak kide bik, Xabier Aranak eta Andres Granadosek, egin dute barikuko

Maiatzaren 28an, gaur, egingo dute lehenengo berbaldi-kontzertua

San Frantzisko monastegiko kontzerturako gonbita. Xabier Aranak gogora ekarri duenez, aurretik ere beste bi bider jo izan du 84 urteko musikariak Durangon. Arandoño kultur elkarteak kideen berbetan, "orain hiru urte Arandoño kultur elkartearen 10. urteurrena ospatzeko eta Felix Aretx-

ga elkartearen sortzailea omentzeko antolatu genuen kontzertuan ere jo zuen Montserrat Torrentek: hurrengo egunean San Frantziskora eraman genuen, eta hango organua jotzen jardun zuen". Orduan esan zien Torrentek egunen batean bertan kontzertu bat eskaintzea gustatuko litzaiokeela. Josef Rheinberger, P. Antoni Martorell eta Jesus Guridiren piezak joko ditu monastegiko organuan.

Orain hamahiru urte sortutako elkarteak 2010 urte honetarako antolatu dituen beste ekitaldi biak ere aurreratu ditu Arandoño elkarteak: irail eta abendurako antolatuko ditu Arandoño kultur elkarteak organuzaleentzako hurrengo hitzorduak. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA



Arantza Arrazola
San Agustineko kudeatzailea

Umore Azoka 2010

Atzoko kontua zelakoan, baina, konturatu barik, urtebete igaroda zutabe hau idazten hasi nintzenetik: gogoan daukat lehen ekarpen txo hartan kaleko antzerkia hartu nuela gaitzat, izan ere Leioako kale antzerki azokatik, Umore Azokatik, heldu berria nintzen orduko hartan.

Aurten ere aipatutako azokan izan berri naiz, eta ikusitakoa kontatu nahi dizuet. 50 kale ikuskizun eskaini dira han; antzerkia, zirkua, kale-alaitzea eta proposamen berri ugari.

150 profesional bildu gara Leioan; %40 Euskal Herrikoak, %50 estatukoak eta %10 nazioarteko jaialdietakoak; haien artean, Belgikako Gant hiriko MiraMiro festibaleko zuzendaria eta Londoneko Watch This Space festibalekoa.

Euskal Herriko ikuskizun onenari saria Gaupasa taldearen *Habitus Mundi* lanak eskuratu du. Bost aktore bikainek ikusleak liluratzea lortzen duten ikuskizun ibiltari dibertigarria.

Munduko beste lekuetako ikuskizun onenari saria *Atempo Cir* lanarentzat izan zen. Txileko talde baten zirku ikuskizun zoragarria, zuzeneko musikagaz; denok zur eta lur utzi gintuzten euren akrobazien eta koreografiaren fintasunaz.

Epaimahaiak aipamena izan du Carmen San Esteban gaiteztarraren *¿Entres?* ikuskizunarentzat, lanaren berezitasunagatik; izan ere, aktorearen eta ikusle bakarraren arteko intimitate bilgunea sortzen du, armairu baten barruan burutzen den mikroantzezpenaren bidez.

Seguru asko proposamen hauek Euskal Herriko hainbat herri-tan ikusi ahal izango dituzue uda honetan, uda aproposa baita kale antzerkirako, eta Durangon ere Uda Kanean Bizi programaren barruan edo eskualdeko jaietan ikuskizun hauek eskaintzea espero dut.

KURTZO AMAIERA >

Berrizko musika eskolako emanaldia ekainaren 4an

Urteroko hitzorduari hutsik egin barik, ikasturte amaiera hurre-ratzen denero antolatzen duten kontzertua eskainiko dute ekainaren 4an Berrizko Musika Eskolako ikasleek. Ikasturte osoko lanaren emaitza erakutsiko dute datorren barikuan. Astero-astero eskolan ikasten dutena gainerako herriarrei erakutsiko dituzte ekainaren 4an, Berrizko Kultur Etxean, 21:00etatik aurrera duten emanaldian.

Ikasturtean zehar ikusitakoa eta azken hilabeteetan kontzertu horretarako prestatu duten erreperatorioa joko dute musikari gazteek. Adin guztietako musikari gazteen eskutik, askotariko instrumentuak eta kanta ezagun asko zuzenean entzuteko aukera da Berrizko Kultur Etxean eskainiko duten emanaldi honetakoa. ■ I.E.

Ikasturte guztian Musika Eskolan landutakoa zuzenean



MUSIKA > ELKARRIZKETA

Disko berriaren aurkezpen kontzertua da biharkoa?

Bai. Abenduan eta urtarrilean grabatutako diskoko kantak bihar joko ditugu lehenengoz. Martxoan salgai ipini genuen diskoko kantez gainera, aurreko disko bietakoak ere eskainiko dituguzuzenean. Hogei kanta eskaintzeko asmoa daukagu, eta asko prestatu dugu kontzertua. Printzipioz, hiru kontzertu emateko asmoa daukagu: Abadiñoaren ondoren, Arrasaten eta Otxandion egongo gara.

Zer taldekidek egin zenuten grabaketa?

Espetxeratu zuten arte baxua jotzen zuen Gaizkaren ordez, Saguk jo du diskoan baxua. Lau bagina moduan egiten saiatu gara. Bere baxua eta bere koraak sartu gura izan ditugu. Orain, Sermond's taldeko Koldok lagunduko digu kontzertuetan. Beti egon da gu laguntzen, eta orain kanta guztiak ikasi ditu; geugaz etorriko da kontzertuetara.

“Letra bat egiteko ez dago istorio bat asmatu beharrik”

Kontzertuetan, orduan, lau musikari izango zarete?

Printzipioz lauok joko dugu kontzertuetan, baina hasierako abeslaria zen Antton ere etorriko da, ahal duenean, kontzertuetara. Abadiñora badator, adibidez, eta batez ere maketa zaharreko abestiak kantatuko ditu.

Kontzertu bakoitzerako moldatzen duzue formazioa?

Zelanbait, bai; kontzertu bakoitza desberdina izan daiteke. Kontzertu bakoitzean egon gaitezkeen taldekide eta lagunak arabera aukeratzeko ditugu joko ditugun abestiak.

Hirugarren lana kaleratzeko taldearen izena 'Iheskide'-tik 'Iheskide'-ra aldatu zenuten.

Lehenago ere taldearen inguruan ibiltzen ginen lagun eta taldekideok Iheskide esaten genion elkarri, eta Gaizka eta gure hainbat lagun kartzelaratu zituztenean, euren artean egin genuen izen aldaketa.



Iheskide: punk-rockaren norabidean aurrera egitea erabaki duen taldea

Gitarra eta koraak egiten dituen Kata, eta abestu eta gitarra jotzen duen Sagugaz egon gara. Orain sei urte inguru taldea sortu zutenetik, **Iheskide** taldean Petrak laguntzen ditu bateriaz. Musikerria diskoetxeagaz kaleratu duten hirugarren lana zuzenean aurkeztuko dute Abadiñoan Askatu Rock jaialdian, bihar. Aurrera egiten lagundu dieten guztiei esker ona adierazi gura diete

Diskoko letratan ere oso presente dago errealitate hori.

Azken batean abestietako letrak gure errealitatearen ingurukoak dira; gure artean ez dauzkagun lagunei buruz, kalean dagoen kontrolaz... Letra bat egiteko ez dago istorio bat asmatu beharrik. Disko honetako letra batzuk, bestalde, Gaizkak idatzi eta guk moldatutakoak dira.

Aurretik egin dituzuenekin alderatuta, zelakoa da disko berria?

Garapen argia egon da: musika “konplikatua” egiten genuen lehen: punteo eta nota asko sartu gura genituen kantetan. Letrak ere gehiago ziren zeharkakoak. Hitzak zuzenagoak dira orain (azken

urteetan jaso ditugun zaplastekoengatik, behar bada), eta musikari dagokionez, sinpleagoa da oinarria. Lehenago eta orain, hori bai, beti punk-rockaren norabidean goaz.

Zelan sortzen duzue?

Normalean taldekide batek ekaritzen du hasierako ideia lokalera, eta denon artean lantzen dugu gero. Taldekide guztion ukitua hartzen du kantak horrela: kide bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu.

Noiztik zaudete kontzerturik eskaini barik?

2008ko udan atxilotu zuten Gaizka, eta ordutik bi kontzertu bai-

“Musika eta letrak zuzenagoak dira hirugarren disko honetan”

“2008ko udan atxilotu zuten Gaizka, eta bi kontzertu eman ditugu ordutik”

no ez ditugu egin. Atxilotu geratu zenean, denbora luzean egon ginen zer egin pentsatzen: baxua joko zuen bat bilatzen hasi edo ez... Ez genuen beste inor hartu; izan ere, azkenean, musikalari daukagun loturaz aparte gauza gehiagok batzen gaituzte. Lagun bat atxilo eroan eta taldea uztea euren garaipena litzatekeela pentsatuta erabaki dugu, azkenean, jarraitzea.

Eta zer gorputzaldi duzue bihar berriz oholtzara igotzeko?

Gogo itzelagaz gaude, baina urduri ere bai: eszenatokia zapaldu barik hainbeste denbora egon izanak, kendu genion errespetua bueltatu dio oholtzari. ■ I.E.

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxe: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

katerin ardoak
iñaki uribe
saltzan
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

A CENTRAL FORESTAL
Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura
Etxebarrieta auzoa 48200 IURRETA
Tf.: 946 205 187
Faxe: 946 205 194

ANTZERKIA > EMANALDIA

Antzerkiola Imaginarioaren azken lana San Agustinen

Ekainaren 3an eskainiko dute 'Babiloniako loreak' antzezlanaren Durangon

Euskal Astearen egitarauan jasota agertzen da Antzerkiola Imaginarioa taldearen *Babiloniako loreak* antzezlanaren Durangoko San Agustin kulturguneko emanaldia: ekainaren 3an, 20:00etan da hitzordua.

74 urteko amamaren eta 25 urteko bilobaren istorioa kontatzen du

Udazkenean, joan zen urteko urrian, Zornotza Aretoan estreinatuta zuten *Babiloniako loreak* antzezlanaren emanaldi hartan egindakoa da aldamenean ikusgai dagoen argazkia.

Zuberoako Luhuso herrian joan zen urteko udan egin zuten egonaldia artistikoan eman zizkion Antzerkiola Imaginarioa taldekoek azken ukituak lanari. Horren aurretik, baina, bost urte-

ko lana izan da Jon Gerediagaren testuan oinarritutako zahartzaroari antzezlanaren osatzea.

Ander Lipus antzezleak egiten du *Babiloniako loreak* antzezlanaren 74 urteko amamarena, eta Espe Lopezek egiten du amamaren 25 urteko biloba. Hegoa protagonistarena. Lipus markinarren berbatan, "tabuz betetako herri batean, amama batek bizi duen egoera eta bere heriotza kontatzen dugu: tradizioari eta abangoardiari buruz dihardugu".

Antzezlanaren sortzeko, gogoan izan ei zituen antzezle nagusi ez eze zuzendari ere baden Lipusek bere amamak hil eta gero logelaren utzitako objektuak, eta halaxe azal-

Joan zen udazkenean Zornotza Aretoan eman zuten lana estreinakoz

du zigan: "Jesukristoren gurutze bat, Sabino Aranaren argazki bat eta bere arropa". Ezer ez besterik. Gaur egun, aldiz, gauza materialez inguratuta gaude guztiok.

Horretaz gogoeta egitera bideratzen gaitu antzezlanak. Ikuspuntu horixe garatu gura zuela azaldu zigun Lipusek. Amama hildakoan geratzen den logela hutsa: horixe da lanaren metafora.

Tragikoa, baina absurdotik abiatutakoa, eta zenbait unetan komikoa ere bada Euskal Astearen egitarauaren barruan, ekainaren 3an, San Agustinen dugun *Babiloniako loreak*, Antzerkiola Imaginarioak azken urteetan prestatu duen lana. ■ I.E.

Lanik oholtzaratu barik bost urtez egon da Antzerkiola Imaginarioa

Absurdotik abiatuta, tragikoa eta komikoa ere bada lana



Ana Dominguez

ARGAKIGINTZA > ERAKUSKETA



Euskal Herriko kostaldean Patxi Badiolak hartutako argazkiak ikusgai Berrizen

Goizean goizeko egunsentiko zein ilunabarreko argiak islatzen dituzten argazkien erakusketa

Paisaje naturalei egindako argazkiak dira, Euskal Herriko kostaldeko ikuspegi naturala eginkoak, Patxi Badiola argazkilari ondarrutarrek Berrizen ipini duen erakusketan bildutakoak. Goizean goizeko edo ilunabarreko argiak bere kameragaz gordetzeko Badiolak egindako lana erakusten dute.

Berrizko Kultur Etxean ikusgai daudenak, asko ezagunak zaizkigun lekuetan egindako argazkiak dira: hurreko hondartza, kala eta itsaslabarretako egonaldietan Patxi Badiolak egindakoak.

Kostaldeari begirada kuttun bat izenekoak da Badiolak erakusketarako bildu duen argazki multzoa. Ekainaren 13ra arte izango dira Euskal Herriko kostaldean egindako argazkiok Berrizko Kultur Etxekoan bisitagai. ■ I.E.

Ekainaren 13ra arte daude Badiolaren argazkiak Berrizen

IPIUIN KONTALARIAK >


'Tximeletak eta mitxoletak' haurrentzako ipuin kontaketa

Maiatzaren 29an, zapatuan, 12:00etan eta 12:30ean dira Alaitz Muro eta Agurtzane Villatek haurrentzako prestatutako "ipuin-illustratuen" emanaldiak. Urte bi eta hiru bitarteko entzuleei zuzenduriko saioa egingo dute 12:00etan, eta 12:30etik aurrera gozatu ahaliko dute emanaldia lau urtetik gorako umeek.

Tximeletak eta mitxoletak izena dauka Durangoko Liburutegiko haurren txokoan Alaitz Murok eta Agurtzane Villatek eskainiko duten ipuin eta ilustrazioen bildumak. Bien elkarlanetik umeentzako sortutako ipuinen kontalaritza saioa da bihar eskainiko dutena. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



MAIATZAK 28 22:00etan
INAKI PLAZA & ION GARMENDIA
O+HATZ Proiektua
KONTZERTUA. Sarrera doan.

MAIATZAK 29 22:00etan
THE RIFF TRUCKERS +
JON & SUGRAMAS
KONTZERTUA. Sarrera: 6euro.

EKAINAK 5 22:00etan
SOULRISES
Aurkezpen kontzertua
KONTZERTUA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

BABILONIAKO LOREAK
FTI Antzerkiola Imaginarioa

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Ekainak 3 • 20:00etan

11.94 601 07 76 Artekale, 11 DURANGO

HITZ

Liburudenda

Zuntza eta Mugikorra, azkenean elkarrekin



Euskaltelen Pribilegio Plana



Zuntza badaukazu eta Mugikorra kontratatzen baduzu, **hilean 6 €-ko deskontua** izango duzu Zuntzaren fakturan. Betiko.

 zuntzOptikoa

Zatoz Euskaltelen saltokira

6 €-ko deskontua Zuntz Optikoa-ren linearen hileko kuota. JBEZa barne. Zuntz Optikoa 2 M-ko edo horik gorako Barida Zabalarekin daukaten bezeroentzat, baldin eta etxeko ondoren ordaintzeko mugikorra Unitia 15 Tarifarekin edo horik gorako batekin kontratatzen badute. Sustapenak 2010eko urtarrilaren 31 arri baino du.

Iurreta Institutuko ziklo berria: Arreta Soziosanitarioa



Datorren ikasturtetik aurrera eskaintza zabalduko du Iurreta Institutuak. Izan ere, Arreta Soziosanitarioa zikloa martxan ipiniko dute irailean, gizartean sortutako beharrari erantzunez. Hezkuntza arloko hutsuneak betetzera dator apustu berri hau. Astelehenean hasiko da matrikulazio prozesua.

Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra izango da epea aurrematrikularako

Gizartea eten barikaldatzen doan egitura da, eta aldaketa horiek beharrak ere sortzen dituzte. Ekuazio horri jarraituz erabaki dute Iurreta Institutuan ziklo berri bat eskaintzea: Arreta Soziosanitarioa. Geroago eta gizarte zaharragoa da gurea, eta geroago eta dependentsia handiagoa duena ere bai; beraz, laguntzaileak formatu behar dira. Durangaldean irailean ekingo diote lan horri.

Hainbat arrazoi ditu apustu horrek. 2006tik institutuak garatu duen plan estrategikoan, gaur egungo eskaintza mantendu eta modalitate berriekin osatu behar zutela adostu zuten, etorkizuneko ikuspegia landuz. Hori, beti ere, Duran-

galdean sortu zitezkeen beharretara egokitzeko helburuagaz. Eskualdeko DBHko hainbat ikastetxegaz izandako hartu-emanetan horrelako ziklo batek ikasle askoren eskaera beteko lukeela ondorioztatu dute.

Lanari dagokionez ere, esparru horretan langile titulu-dunen beharizan handia dago. 1970etik 2000. urtera, bibidertu egin da dependentsia duten pertsonen kopurua (%9tik %17ra) eta, era berean, 80 urte baino gehiago dauzkaten kopurua ere bibidertu da. Gainera, 65 urtetik gorakoen %32k minusbaliotasunen bat dauka. Espainiako 2006ko Dependentsiaren Legeak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gerontologia Planak adinekoen eta ezinduen

eskubideak babesten dituzte, gainera. Jaurlaritzaren arabera, gaur egun EAEn 60.000 familiak dute euren senide bat zaintzeko ardura.

Matrikulazio fasea

Astelehenean, maiatzaren 31n, zabalduko da aurrematrikula egiteko epea, eta ekainaren 11ra arte egongo da izena emateko aukera. Matrikula, uztailaren 7tik 13ra bitartean egin beharko dute interesatuek.

D ereduari, euskara hutsuan izango dira klaseak. Modu horretan, arduradunen helburua profesional elebidunak sortzea da.

2.000 orduko iraupena izango du zikloak, eta horietatik 370 praktiketara bideratuko dituzte, zonaldeko egoitzetan, eguneko zentroetan eta instituzioetan garatzeko. Izan ere, institutuak hainbat enpresa eta erakunderen atxikimendua jaso du ziklo hau martxan ipintzeko.

Dagoeneko hasi dira iraileko prestaketetan, eta, erronka berria dela jakin arren, ilusioz hartu dute Iurreta Institutuan.

D ereduagaz, profesional elebidunak sortzea dute helburu

2.000 orduko zikloa izango da; horietatik 370 praktiketan

“Arlo berria da, baina etorkizun handikoa”

Iurreta Institutuko zuzendaria da Tomas Maguregi. Irailean dena behar den moduan egon dadin, lan eta lan dabil bere taldeagaz. Eskaintzaren nondik norakoak azaldu dizkigu.



Nondik dator ziklo berria martxan ipintzeko ideia?

Eskualdean dagoen ikasketa eskaintza osatzea eta gure ikastetxearen hezkuntza eskaintza handitzea dugu helburu. Urtero, matrikulazio sasoian, erdi mailako heziketa zikloren bat egitera datorren ikasle kopurua handia izaten da. Gaur egun, horientzat dugun hezkuntza eskaintza motz geratzen da; DBH amaiturik, geroago eta ikasle gehiagoren helburua erdi mailako heziketa ziklo bat egitea izaten da-eta. Eskualdeko DBHko ikasteetxeetako orientatzaileekin izandako elkarrizketetan, honelako ziklo bategaz hein handi batean ikasleen beharrak asetuko liratekela ikusi dugu: ez dago ikasleen eskaerei erantzuteko alternatiba egokirik, ez arlo publikoan ez pribatuan, eta are gutxiago D erudian.

“20-25 ikasleek osatutako talde bakarra izango dugu”

Ikastetxeak pausu garrantzitsua eman du ziklo berri hau txertatuz.

Zalantzarik barik. Gure heziketa ziklo gehienak industria sektorekoak direnez, nesken presentzia oso txikia da. Betidanik egin ditugu ahalegin bereziak emakumeen presentzia handitzeko ohituraz gizonentzako izan diren esparruetan. Argi daukagu neskentzat erakargarriak

diren erdi mailako heziketa-zikloak eskaini behar ditugula. Horrela, aukera berdintasuna eta emakumeen laneratztea sustatuko ditugu.

Pausua da, baina erronka ere bai. Zelan ikusten duzu apustu hau?

Arlo berria da, baina etorkizun handikoa. Arreta Soziosanitarioa geroago eta profesionalagoa izango da, eta gaur egun lan hauek burutzen dabilen jende askok titululua beharko du. Gure ikastetxeak honetan ere zeresan handia izango du, baimenduta egongo garelako titulazio hori emateko.

Eskaintza berri honek, aldaketak ekarriko ditu lan-taldean eta instalazioetan.

Arreta Soziosanitarioaren zikloak instalazio guztiz berriak behar ditu eta, esaterako, dagoeneko egokitzen gabiltza institutuan daukagun laborategia, lehenago fisika eta kimikakoa izandakoa.

Zenbat ikasle izango dituzue?

Hasiera dela eta espazio aldetik leku berezia behar dela kontuan hartuta, 20-25 ikasleek osatutako talde bakarra izango dugu, eta D eredukoa izango da.

Zertan lan egin ahal izango du zikloa gainditzen duenak?

Premia espezifikokoak dituzten pertsonen zaintzan, adineko pertsonen, minusbaliatu fisikoen edo psikikoen zaintzan, etxez etxeko laguntzaile... praktiketarako, erakundeekin hartu-emana sustatuko dugu; behar den denboraz eta patxadaz egin beharreko lana da, eta horretan dihardugu.

HELBURUAK:

1. Bere kabuz baliatu ezin duten pertsonen (zaharrak, ezinduak, gaixo kronikoak eta eriondoak) dituzten ezaugarriak eta berriaz eman behar zaien laguntza fisikoa, psikikoa eta soziala ezagutu eta interpretatzea.
2. Esku-hartzearen xede diren pertsonen eta taldeen behar duten laguntza fisikoa eta psikosoziala emateko eta haien autonomia mantendu eta hobetzeko behar diren ezagutzak eta trebetasunak eskuratzea.
3. Erabiltzaileen eta haien ingurunearen arteko komunikazioa eta gizarte-harremanak sustatu eta bideratzea, kasu bakoitzean baliabide egokienak erabiliz.

SARTZEKO BALDINTZAK:

• DBH • LH1 • IEE 1.ZIKLOA • BBB 2 • 17 urtetik gorakoentzako sarbide froga

IRAUPENA:

2.000 ordu (bi ikasturte)

Arreta Sozio-sanitarioan teknikaria

1. ikasturtea

MODULUAK	Orduak/ astean
Osasun laguntza	7
Laguntza eta sostengu psikosoziala	7
Berriazko kolektiboen behar fisikoak eta psikosozialak	5
Etxez etxeko laguntza	6
Familia elikadura eta nutrizioa	3
Lan taldeko harremanak	2

2. ikasturtea

MODULUAK	Orduak/ astean
Kalitatea eta etengabeko hobekuntza	2
Esku hartzeen plangintza eta kontrola	5
Higienea	5
Enpresa txikien administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea	5
Berriazko kolektiboen aisialdia eta denbora libre	5
Ordezko komunikazioa	5
Lan prestakuntza eta orientatzailea	3
Lantokiko prestakuntza**	368

** Ordu kopurua urtean

IRITZIA >

Gutunak

Hogei urte geroago

2010. urtea berezia da Iurretako udalerriarentzat. Gure Udalak urteurrena ospatzen du, eta ez donolako, gainera. Iurretarron artean, aurreko urtarilaren lehen gure herriak autonomia berreskuratu zuteneko hogei urte bete ziren, 60 urtean Durangoko auzunean izan ostean. Ordutik aurrera, gu geu Iurretaren etorkizuna zein izan behar duen erabakitzeke jabe gara, hau da, udal modernoa, behar adinako zerbitzuak dituen.

Urtemugagarrantzitsu hau ospatzeko, eta desanexioaren aurreko prozesuan parte hartu zuten pertsonak gogoan hartzeko, ekitaldi xume bat antolatu genuen Udaletxe aurrean.

Eguna herriari eskaini nahi genion, iurretare, hain zuzen ere, Iurretaren nortasuna eta gure Udalaren autonomia aldarrikatu zutenei, herriaren etorkizuna erabakitzeke gaitasuna aintzatsi zutenei, bai 1990. urtea baino lehen, baita ondoren ere.

Ekitaldi horretan Iurretaren marka azpimarratu nahi genuen, ilusioz eta gogoz etorkizunari begiratzen dion herria irudikatuz. Era berean, Iurretako lehenengo gestora osatu zuten 13 pertsonak ere gogora ekarri eta omendu nahi genuen, eurek osatu zutelako lehenengo Udala desanexioaren ostean. Bide beretik, aurreko garaian euren lana eta esfortzua jarri zutenak ere oroitu genituen; hau da, une hau heldu ahal izateko euren ekarpen txikia edo handia jarri zuten guztiak (desanexioaren lehenengo bi gestoretako kideak), bai eta, Udala eratutakoan, gure zinegotziak izan zirenak eta direnak, eta, nola ez, gure lehenengo alkatea: Jose Martin Etxebarria. Pertsona horien guztien lanari esker dugu gaur egungo Iurretaren gure eskura.

Gure herriak izugarriko aldaketak izan ditu 20 urte horietan. Herriko inguru guztietan begirada botatzea baino ez dugu egin behar horretaz jabetzeko. Alabaina, ezin dezakegu gure ahalegina bertan behera utzi. Badago oraindik ere lan handia egiteke. Herri polita izan nahi dugu, zerbitzu egoki, berdegune nahiko eta eskuratzeko moduko etxebizitzekin. Herri sortzaile, bidezko, jasangarri eta euskaldun nahi dugu. Herriaren arteko harremanak errazten dituen herria, trinkoa eta anitza, aldi berean, aniztasun guztiak, bai ideologikoak bai kulturalak, bere baitara biltzen dituen herria.

Hori da, jadanik, herri hau osatzen dugun pertsona guztiek aurretzean daukagun lana. Horretarako, gaur egun arte bezala, gutariko bakoitzak gure lana, ahalegina eta ilusioa jarri beharko ditugu, hurbileko etorkizunean gure denok bakean, berdintasunean eta askatasunean lan egiteko aukera izatea espero dugularik.

Edonola, Iurretaren ez da ezer Durangaldea barik; baina gure eskualdeak ez luke zentzurik izango Iurretarik gabe. Udala berreskuratu genueneko 20. urteurren honetan, elkarrekin lan egiteko beharra aldarrikatu nahi dut, eskualdean batzen gaituen sustatuz, eta banatzen gaituzten gorabeherak alboratuz. Durangaldeari onura egiten dioten egitasmoak aurrera eramateko batu behar gara, egitasmo horiek gure udal bakan bakoitzari ere mesede egingo diotelako.

20 urte hauetan ikasitako erabili behar dugu etorkizunean tinto aurrera egiteko, gainerakoekin elkarlanean, gure Udalaren gaitasun guztiak garatuz, pertsona oro gizarteratuz, herriko iritzi politiko zein kultura guztiak harremanak edukiz, elkartasunean biziz eta guztien artean bakea eraikiz.

Ez nuke hau amaitu nahi 20 urtetan Udaleko langile izan diren guztiei nire eskerrik beroenak eman gabe, gehienbat, gure artean ez dauden oroimenean hartuta. Eta, batez ere, azpimarratu nahi nuke pertsona bat: Amaia Rementeria da bera.

Esker mila ekitaldi horretara hurbildu eta parte hartu zenuten guztoi,

Iñaki Totorikaguena Sarrionandia - Iurretaren elizateko alkatea

Iurretaren desanexioa dela-eta

Aurten betetzen ditugu iurretarek 20 urte Durangotik desanexio-natuta. Kontuak kontu, badiragogoan hartzeko data eta egun esan-guratsuak: 1989ko maiatzaren 23a, Durango eta Iurretak hitzarmena sinatu zuten eguna; 1989ko uztailaren 13a, erreferenduma egin zen eguna; 1989ko azaroaren 13a, Bizkaiko Batzar Nagusiek desanexioa onartu zuten eguna; 1990eko urtarrilaren 1a, desanexioa indarrean jarri zen eguna; 1990eko urtarrilaren 13a, Iurretaren elizateko "udalaren" lehen osoko bilkura...

Agian, ospakizunerako egun bat aukeratzea zaila izango zen, iritzi ezberdinen arteko eztabaida luzea izango zen tartean.

Joan zen maiatzaren 25ean, Iurretako Udaletxean, Iurretaren desanexioaren 20. urteurrena gogoratzeko ekitaldia antolatu zen, eta eskertzen dugu, legedi guztien ginetik, justua deritzogulako, Ezker Abertzaleko ordezkariak bertara gonbidatu izana. Hala eta guztiz, badaude argitu beharreko zalantzak eta salatu beharreko jarrerak.

Nork antolatu du ospakizuna? Guk dakigunaren arabera, Iurretako udalbatzak ez du gaia aztertu inongo batzordetan, oposizio talde batzuk gonbita hartu duten unean bertan enteratu ziren. Zergatik Maiatzaren 25ean? Zergatik omendu 1990eko urtarrilaren 13an "berrosatutako" gestora, eta ez aurreko gestora guztiak? 83koa? 87koa?

Iurretaren desanexioa iurretarek guztien ondarea da, eta ez dugu onartzen, inola ere, alderdikeriazko erabilerarik.

Iurretaren desanexioa zuzen, herritarren gehiengoak horrela erabaki zuelako. Egiari zor, aitortu behar da akuilari lana egin zutenen meritua; baina akuilari bezala soilik.

Iurretaren desanexioa prozesuan, besteak beste, oso ospetsua egin zen lema bat: Iurretaren gure herria, Euskadi gure aberria; eta orduan ere norbaitek gehitu zion: Eta EAJ gure alderdia.

Ez dugu onartzen horrelako jarrerarik, are gutxiago desanexioaren gurdira berandu eta kostata igotako alderdi batetik badator.

Lehen aipatu ditugu hainbat data, eta edozein izango zen ego-kia honelako ekimen bat antolatzeke. Baina, zergatik maiatzaren 25a? Ez ote da hauteskunde zurrunbiloak bultzaturiko agerraldi bat izango?

Bakoitza libre da nahi dituenak omentzeko; batzuk, ordea, gero eta oztopo gehiago ditugu omenaldiak antolatzeke orduan. Baina Iurretaren desanexioaren urtemugaren aitzakiarekin "Iurretaren lehen gestora" 1990eko urtarrilaren 13an osatutakoa dela esatea, eta are gehiago omentzea, aurretik izandakoa gutxieste eta baztertzeko dela iruditzen zaigu. Eta "...haiek ere gogoan daukagu..." esateak, aurpegia zuritzeko baino ez duela balio uste dugu.

1990eko urtarrilaren 13an, mahaia jarrita zegoen Iurretaren elizateko; baina mahaia hori ez zen zerutik jauzi, aurreko urteetan iurretarek egindako lanaren ondorio izan zen, tartean, 1983ko eta 1984ko gestoren lana.

Iurretaren Ezker Abertzaleak lan eskerga egin zuen desanexioa lortzeko, baita garai zailetan ere, eta oso harro gaude egindako lanarekin, eta, nola ez, lortutako helburuarekin; baina argi daukagu, baita ere, desanexioa herriaren lorpena izan zela, eta, beraz, bere ondarea dela, eta horregatik ez dugu inolako erabilera partidistarik onartzen.

Espero dugu aurretzean ospatuko ditugun desanexioaren urtemugak denon artean eta hobeto antolatzea. Gu prest gaude laguntzeko.

Iurretaren Ezker Abertzalea

Sei hankako mahaia



Jose Luis Zubillaga
Ezker Batua-Berdeak

Anbulatorioak itxita zapatuetan

Osakidetzak zapatu goizetan ambulatorioen erdiak izteko erabakia jakinarazteak ondoriozko kezka eragin du gizartean.

Ezker Batua-Berdeakeko kideok orain zabalik egon ohi diren 103 osasun zentroetatik 48 zapatu goizetan itxita aurreikusituen duen proposamena atzera botatzeko eskatu dugu, irizpide ekonomiko hutsez egindakoa dela eta erabiltzaileen gehiengoak kaltezen duela deritzogulako.

Milaka gaixok ohiko zentro-tik urrun joan beharko du mediku batek artatu ahal izan ditzen edozein beharrezkoan aurrean, horrek eragiten dituen gorabeherekin. Durangaldea, adibidez, Abadiñoa, Berrizkoa eta Elorrioko itxita dituzte, eta zapatu arratsaldeetan, igandetan eta jaiegunetan zabalik egongo da Durangoko Etengabeko Arretako Gunea.

Proposatutako eredu berriak pediatria zerbitzurik barik ere utziiko ditu erabiltzaileak zapatu goizetan.

Gure ustez, neurri hauekin lortuko duten bakarra larrialdi-zerbitzuak gainezka egotea izango da, kolapsatzeraino.

Bere garaian, EAJ Jaurlaritzan zegoenean, Inclin osasun sailburuak ere asteburuetan ambulatorioak izteko aukera iradoki zuen, eta talde politiko guztiek gogor egin zuten EAJren aurka. PSEk berak ere bai. Zer dela-eta jarra aldaketa hau? Dioten moduan, krisi garaian aurreztu ahal izateko da? Ala Osakidetzan egiten ari diren kudeaketa txarra ezkuatzeke ote da?

**Erredakzioan itzulita*

Neurri hauekin lortuko duten bakarra larrialdi-zerbitzuak gainezka egotea izango da, kolapsatzeraino

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko maiatzaren 28a - 9. urtea - 375 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:		
	Abadiño	Elorrio	Mallabia
	Atxondo	Garai	Mañaria
	Berriz	Iurretaren	Otxandio
	Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Dominguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA



ERDI MAILAKO ZIKLOAK

ERIZAINZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK

GOI MAILAKO ZIKLOAK

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA

GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA

OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA



Orain da garaia!

AURREMATRIKULAZIO EPEA

MAIATZAREN 31 TIK EKAINAREN 11 RA



902 11 20 25

LANBIDE@ARIZMENDI.IKASTOLA.NET
WWW.ARIZMENDIPRO.EU

A **PRO**
Arizmendi
ikastola

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Maiatzaren 30ean, 17:00etan

VIOLETA COLETAS CONTRA LOS SALCHICHAS GULP!

Violetari ez zaizkio zerbak gustatzen, Violetari saltxitxak gustatzen zaizkio; Violetari ez zaio bere neba Lois gustatzen, bera gabe hain gustura zegoen... orain dena desberdina da: gurasoek ez dute beragaz egoteko denborarik: pardelak, biberioiak... Violeta laster konturatuko da desioak egi bihur daitezkeela.

ANTZERKIA

BERRIZ

- » **'Superplast'** haur-antzerkia, maiatzaren 28an, Olakueta plazan, 17:30ean.



DURANGO

- » **'Babiloniako loreak'** F.T.I. Antzerkiola Imaginarioa, ekainaren 3an, 20:00etan, San Agustinen

ELORRIO

- » **'Las Alba'** Bizkaiko Antzerki Ikastegiko aktoreak ikusteko aukera, maiatzaren 28an 22:00etan, Arriolan.
- » **'Violeta coletas contra las salchichas gulp'** haur antzerki saioa Trompicallo konpainiaren eskutik, maiatzaren 30ean 17:00etan, Arriolan.

ERMUA

- » **'Unplugged: una comedia desenchufada'** maiatzaren 28an, 22:15ean, Lobiano Kultur Gunean.

BERBALDIA

ABADIÑO

- » **'Amets 1 + bizikleta 2 = 3 urte mundutik zehar pedalei eragiten'** Alice Goffart (Bruselas) eta Eibarko Andoni Rodelgok euren esperientzia kontatuko dute ekainaren 3an, Errota Kultur Etxean, arratsaldeko 19:00etan.

DURANGO

- » **Maiatzaren 27tik ekainaren 17ra bitartean 'Arkeologia eta Historia' izeneko hitzaldi zikloa** burutuko da Etxezarreta Jauregian (Durangoko Museoan). Ekainaren 3an, 19:00etan: 'Las bases del trabajo arqueológico: Como leer las huellas de la historia en el yacimiento' Teresa Campos López irakaslearen eskutik.

ZALDIBAR

- » **Emakumearen Osasunari Buruzko Nazioarteko Eguna** maiatzaren 28an, 17:00etan, liburutegi zaharrean 'Depresioa emakumeetan; faktoreak eta prebentzioa' Antonio Ruiz Zaldibarko Ospitaleko Psikiatraren eskutik.

BERTSOAK

BERRIZ

- » **Durungaldeko Bertsolari Txapelketa** maiatzaren 29an, 18:00etan, Olakueta Frontoian; Bertsolariak: Miren Amuriza, Eneko Abasolo "Abarkas", Gorka Lazkano, Eñaut Uruburu, Beñat Ugartetxea eta Julen Sololuze.

BESTEAK

BERRIZ

- » **Mendi irteera eta erreka garbitzea.** Irteera ekainaren 6an izango da. Azken urteetan legez, Urbiara irteera izango da. Horretarako kiroldegian eman beharko da izena. Erreka garbitzeko eguna, berriz, ekainaren 12a izango da.



ERMUA

- » **'Txikiteokide'** maiatzaren 28an, 20:00etatik 21:30era, Herga tabernan hasita.
- » **Gaztela- La Mantxako Kultur Astea.** Maiatzaren 30era arte hainbat ekitaldi antolatu ditu Gaztela-Mantxako kultur zentroak.

IURRETA

- » **Iurreta Txirrindulari Elkartek ibilbideak** egingo ditu maiatzaren 29an 08:00etan eta 30ean 08:30ean Iurretan irtenda.
- » **Maiztegi Herri Eskola Guraso Elkartea XI. Kirol Jardunaldiak** maiatzaren 29an, 10:00etan, Maiztegi herri-eskolan.

ZORNOTZA

- » **Umeentzako aisialdi programa** 6-10 urte bitarteko umeentzat. Doakoa. Maiatzaren 29an, 16:00etatik 20:00etara, umeentzako hainbat ekitaldi Zelaieta zentroan.

DEIAK

DURANGO

- » **Odola emoteko aukera**, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

IURRETA

- » **Udaleku Ibiltariak** Urbasatik Elizondora uztailearen 1etik 14ra eta **Udaleku Finkoak** Ozaetan, uztailearen 14tik 26ra. Informazio gehiago: kimuak@kimuak-elkarte.com, edo telefono hauetan: 665 72 82 13-94 620 03 42

- » **Astelehenero jaiak antolatzeko batzarrak** egingo dira, 20:00etan, IMiko lokaletan.

ERAKUSKETA

BERRIZ

- » **'Naturari'** Patxi Badiola argazkilarik Euskal Herriko kostaldean jasotako irudiak ikusgai, ekainaren 13ra arte, Kultur Etxean.
- » **Gaur egungo zaborren kudeaketa** erakusgai, ekainaren 5era arte, Probalekuan.
- » **Udalak antolatutako lehen mural lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa** antolatu dute, ekainaren 4ra arte, Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era.

DURANGO

- » **Cristina Rodriguez margolariaren lanak**, maiatzak 29ra arte, Arte Lekun.
- » **'Bariazioak, lokarriak eta grafiak'** Mariemi Otaolak bere eskulturak erakusten ditu. Maiatzaren 30era arte Museoan egongo dira ikusgai.

ELORRIO

- » **'Euskal pilota herriz herri'** erakusketa ikusteko, aste osoan zehar, 17:00etatik 20:00etara.

ZORNOTZA

- » **Zelaieta zentroko tailerren erakusketa**, maiatzaren 31tik ekainaren 15era ikusgai, Zelaietan.

IKASTAROKAK

BERRIZ

- » **Norbere txakurra hobeto ezagutzeko** ikastaroaren bigarren zatia egingo dute, ekainaren 1ean, Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era doan.

ERMUA

- » **Txalaparta jotzen ikasteko** ahalik eta arinen izena eman, SMSa 639 414 295 telefonora bidaliz edo ermua_berba@aek.org helbidera e-maila idatziz, maiatzaren 27an, Betiondoko lokaletan, 19:00etan.

- » **Spinning ikastaroa** ostiralero 18:00etatik 18:50era. Informazio gehiago eta izen ematea: Udak kiroldegian.

IKUS-ENTZUN

ELORRIO

- » **Berbalagunek diaporama saioa antolatu du: 'Osteratxo bat Himalayan barna'** ekainaren 3an, 20:00etan, Iturri kultur etxean.

IPUINAK

DURANGO

- » **Alaitz Muro eta Agurtzane Villate** kontalariak haurrentzako ipuin kontaketa saio ilustratua egingo dute: **'Tximeletak eta mitxoletak'**, maiatzaren 29an, Liburutegian 12:00etan, 2-3 urte bitartekoentzat; 12:30ean 4 urtetik gorakoentzat.



IURRETA

- » **Paula Carbonell eta Carmen Barcena** kontalariak maiatzaren 28an, 20:00etan, Liburutegian.
- » **'Mal de amores' Paula Carbonell eta Carmen Barcena** helduen ipuin kontalariak maiatzaren 28an 20:00etan liburutegian.
- » **Haurren irakurketa** klubaren amaiera festa, maiatzaren 28an, 17:00etan, liburutegian.

JAIK

DURANGO

- » **Euskal Astearen baitan Mugarri Eguna maiatzaren 29an.** 08:00etan, Andra Mariko elizpetik Orozketara bideko lehen bihurgunetik hasi, Larrinagatxu bidetik jarraitu eta Landako kiroldegian bukatu. Izen-ematea Pinondo Etxean: 94 603 00 30 telefonon. **Ekainaren 1ean** 10:00etan **umeen euskal jolas tradizionalak** Landako kiroldegian.

Ekainaren 2an Alberto Iñurrategi-
ren **Mendi Erreportaia 'Begiz begi'**
San Agustinen, 20:00etan.



Ekainaren 3an 09:15ean, **umeen-
tzako zinea: 'Animal Channel'**
Kurutzia Ikastolaren eskutik,
Zugazan. 20:00etan **Babiloniako
Loreak** F.T.I-Antzerkiola imagina-
rioaren eskutik, San Agustín Kultur
Gunean.

» **Apirileko Feria Landako Gunean.
Maiatzaren 29an** 12:00etan
Inaugurazioa eta Feriaren piztea.
12:30ean Durangoko Andaluziako
kultur elkarteko **abesbatzaren
emanaldia.** 14:00etan **Herri-
bazkaria.** 18:00etan Durangoko
Andaluziako Kultura Etxeko taldeen
eta gonbidatutako hainbat elkar-
teetako **taldeen dantza saioak.**
19:00etan **Dantza tailerra.**
20:00etan **'Onda futura'** rekin
dantzaldia. 23:00etan **'Cuadro
flamenco Azahar'** taldearen eskutik
dantzaldia. 00:30ean Dantza-
laldiaren jarraipena. **Maiatzaren 30ean**
11:00etan **Feria zabalduko** da.
12:00etan **Soineko Flamenkoen
erakusketa.** 17:00etan Elkarte
gonbidatuetako eta Durangoko
Andaluziako Kultura Etxeko **taldeen
dantza saioak.** 20:00etan **Feriaren
itxiera.**

LEHIAKETA

DURANGO

» **Ferixa Nagusiko kartel lehiaketa**
2010 martxan dago, lanak
aurkezteko epea ekainaren 15ean
amaitzen da, 14:00etan.

IURRETA

» **Aita San Migel jaietako kartel**
lehiaketan parte hartu eta lanak
aurkezteko azken eguna: ekainaren
18a izango da, Kultur Etxean.

MUSIKA

DURANGO

» **The Riff Truckers eta Jon &
Sugramas** maiatzaren 29an,
22:00etan, Plateruenean.
» **Organo kontzertua** maiatzaren
28an, 20:15ean, San Frantzisko
Monastegian. Montserrat Torrent
Serra organistaren eskutik.

ELORRIO

» **Garamenditar Agustin Musika
Eskola** maiatzaren 29an, 18:30ean,
Arriolan.

ERMUA

» **Ermua Kantuan.** Maiatzaren 29an
12:30ean Orbe Kardenalaren
plazan.

» **Musika bandaren kontzertua**
egongo da ikusgai Valdepeñaseko
Agrupación Musical 'Maestro
Ibañez' maiatzaren 29an, Orbe
Kardenalaren plazan, 12:30ean.

ZORNOTZA

» **'Das Namenfest. Aitonaren
urtebetetzea'** umeen opera
eskainiko dute, Durangoko
Bartolome Ertzilla musika eskolako
bakarlari, orkestra eta koroak.
Emanaldia ikusteko aukera

ZINEKLUBA

DURANGO

» **'El escritor'** ekainaren 3an,
20:30ean, Zugaza zinema aretoan
ikusgai.

ERMUA

» **'Retorno a Hansala'** ekainaren 3an
19:00 eta 21:30ean, Lobiano Kultur
Gunean ikusteko aukera.



Maiatzaren 29an, 22:00etan
**THE RIFF TRUCKERS
ETA JON & SUGRAMAS**

Rock & roll doinuak dakarzkigu Gernikako The Riff Truckers taldeak,
gitarra indartsu eta ondo uzartutako ahotsen bidez. Blues eta country
soinuak ere aurkitu ditzakegu 'On route' izeneko azkeneko lanean.
Led Zeppelin, Screamin
Cheetah Whellies edo Rory Gallagher bezalako musikarien eragina
nabaritzen da egiten duten musikan. Taldearen benetako esentzia
zuzenean entzuteko aukera dugu Plateruenean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Legion (Digital)
Zuzendaria:
Scott Stewart
barikua 28:
19:00/22:00
zapateria 29:
19:30/ 22:30
domeka 30:
19:30/22:30
astelehena 31: 19:00/22:00
martitzena 1: 20:00



Umeentzako zinea

El supercanguro
zapateria 29: 17:00
domeka 30: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia
Soul Kitchen
Zuzendaria:
Faith Akin
zapateria 29:
22:30
domeka 30:
20:00
astelehena 31:
20:00



ZORNOTZA

Zornotza aretoa
En el limite del amor
Zuzendaria:
John Maybury.
domeka 30:
20:00
astelehena 31:
20:00



BOTIKAK

Barikua, 28
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
Zapateria, 29
09:00-09:00
• San Roma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• De Diego/ Sagastizabal/ Balenciaga/
Etxebarria/ Unamunzaga/ Campillo
• Irigoien*
(Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
Domeka, 30
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
Astelehena, 31
09:00-09:00
• Gaztelumendi
(F.J. Abasolo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa
(Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
Martitzena, 1
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Eguaztena, 2
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
Eguena, 3
09:00-09:00
• Irigoien
(Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOA

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92
San Agustín94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

18° BARIKUA
Aurrera egin ahala eguraldia
hobetuz joango da.
Egunsentian giroa goibela
izango da, eta euria egin
dezake oraindik. Arratsaldean
zehir atertuz joango da eta
ostarteko zabalduko dira.
23° ZAPATUA
Eguraldi ona eta lasaia espero
dugu. Goizaldean lanbro apur
bat sortuko den arren, goizetik
aurrera giro eder eta
eguzkitsuarekin gozatuko dugu,
eta tenperaturak epeltzera
egingo du.
18° DOMEKA
21° ASTELEHENA
20° MARTITZENA



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko 11 euro



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.



Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.

KIROLAK >



Kepa Aginako

Quad zaleen topagune bihurtuko da Abadiño

Iazko arrakasta berdintzea du helburu Enduquad Abadiño Motor Klubak ekainaren 12tik 13ra Traña-Matienan antolatuko duen Nazioarteko II. Quad Ope-nak. Quad erakustaldiak ez eze, gaztetxoentzako ekitaldiak anto-latuko dituzte, eta Edi Aroko Azokagaz gozatzeko aukera ere eskainiko dute.

CIE-Inyectametal dagoen inguruko lur zatian 200 bat

quad gidari batuko dira, Euskal Herritik zein nazioartetik etorri-takoak. Iaz 10.000 lagun batu ziren ikuskizunekin gozatzera, eta aurten marka hori berdintzea itxaroten dute.

Zapatu goizean, 10:00etatik 14:00etara, quad trial lehiaketako kanporaketak jokatuko dituzte. Irabazleak 16:00etatik 20:00etara erabakiko dira. Hainbat modalitatetan ibiliko

dira quad gidariak. Trial modalitatean trebetasuna eta abilezia dira dohain nagusiak. Besteak beste, antolatzaileek munduko talderik onentzat aurkeztu duten Portugalgo Claw Sports taldea etorriko da Traña-Matienara. Quadcrossean ibiliko direnek, berriz, saltoak, abiadura eta ikuskizuna segurtatuko dute.

Ekainaren 13an Espainiako quadzaleen topaketa egingo

dute Abadiñon, eta Durangaldean zehar ibilaldia egingo dute. 200 bat quad zale batzea espero dute antolatzaileek.

Erdi Aroko Azoka

Asteburu osoan, lehiaketa garatzen den inguruan, 45 standez osatutako Erdi Aroko Azoka izango da ikusgai. Horrez gainera, nobedade moduan, buggy eta 4X4 erakustaldiak eskainiko dituzte egun bietan.

Aurten ere gaztetxoei zuzendutako gun bat egongo da, puzgarriekin, apar festagaz, pedaldun quadekin...

Domeka goizean herri-kirol erakustaldia eskainiko dute. Domekan, 16:00etatik aurrera, Abadiñoko De Norte A Sur dantza taldearen zein Galizia, Andalu-zia eta Extremadurako talde banaren dantza erakustaldiak egingo dira. ■ J.D.

Quad jaia antolatu dute ekainaren 12an eta 13an Traña-Matienan

24 Emakumeen Bira aurkeztu dute


Asteon aurkeztu dute aurtengo Emakumeen Bira, eta beste behin goi mailako txirindulariak batuko ditu: Judith Arndt, Nicole Cooke, Claudia Hausler...

25 Oihana Azkorbebeitiari elkarrizketa

Anboto Kilometro Bertikalean bigarren egin zuen, eta Zegama-Aizkorri mendi maratolean hirugarren. Sasoi betean dagoen abadiñarrak aurtengo denboraldia lasaiago hartuko duela dio.

Ikuskizuna segurtatuta dago beste behin Emakumeen Biran

Arndt, Hausler, Cromwell... batuko ditu Birak ekainaren 10etik 13ra



Iaz Judith Arndtek irabazi zuen Bira, eta Claudia Hausler sailkatu zen bigarren. K.A.

Emakumeen Biraren XXIII. aldia aurkeztu dute asteon. Iaz azkeneko etapara arte borroka bizia mantendu zuten munduko txirrindulari onenek. Aurten ere lehia segurtatuta dago. Judith Arndt iazko irabazleak gogotik lan egin beharko du berriro Urduñan maillot horia jantzi gura badu. Izan ere, askoren ustez faborito den Claudia Hausler iazko bigarren postua hobetzeko asmoagaz etorriko da. Ezin ditugu ahaztu Nicole Cooke —iaz etapa bi irabazi zituen— Tiffamy Cromwell eta Emma Johansson ere. Hautagai asko eta sendoak ditu aurtengo aldiak.

Aurten 23 talde eta 138 txirrindulari ibiliko dira errepidean. Lau talde euskaldunak dira: Bizkaia-Durango, Lointek, Debarrena Kiroldi eta Tolosa. Besteak beste, Britainia Handia eta Australiako selekzioak ere etorriko dira, txirrindulari gazte eta gogotsuekin. Hong Kong eta Errusiako talde bana ere

Lau talde euskaldunak dira: Bizkaia-Durango, Lointek, Tolosa eta Debarrena Kiroldi

badator. Txirrindulari euskaldunei dagokienez, Eneritz Iturriagaetxebarria etortzekoa zen, baina oraintsu klabikula apurtu du eta errekupeazio prozesuan dabil. Hala ere, euskal ordezkaritza kalitateko txirrindulariek osatuko dute: Mireia Epeldek —Euskal Herriko txapelduna—, Leire Olaberriak, Ane Santestebanek eta Cristina Alcaldek, besteak beste.

Elgetako kronoigoera berriz Lau egunetan bost etapa korrituko dituzte; horietako bat ekainaren 12ko Elorriotik Elgetarainoko kronoigoera izango da.

Ekainaren 10eko lehenengo etapa lurretan hasi eta amaituko da (88km). Elorrioko San Agustingo harlauzatik igaroko dira txirrindulariak, eta Miotako gaina ere gaudituko beharko dute. Lo hartuz gero, sorpresak egon daitezke.

Bigarren etapa Lekeitio inguruan ibiliko da (112 km). Lekoitze gaina birritan igaroko beharko dute, eta bero egiten badu etapa gogorra aurreikusiko dute antolatzaileek.

Ekainaren 12an etapa bi izango dira. Goizean Elorriotik Elgetarako kronoigoera izango dute; zaleek oraindik gogoan izango dituzte sasoi batean Joane Somarribak eta Fabiana Luperinik emandako erakustaldiak. Arratsaldean lurreta eta Zuia arteko 79 kilometroak osatu beharko dituzte.

Azkenik, ekainaren 13an, ohi legez, Urduñarako igoerak eta ondorengo jaitsierak argituko ditu dudu guztiak. ■ J.D.

Agustin Alkorta
• Futbol entrenatzailea



Omenaldiak

Txoko txiki honetatik omenaldi bi egin gura ditut: Lehenengoa Joseba Etxeberriari, "oilarrari", eskaini nahi diot. Gutxi emango zuten berak eman duen errendimendua. Lotura berezia sortu du taldearen eta afizioaren artean, eta ezin du inork ukatu Joseba handienetakoa izan dela.

Ez gara konturatuko urte batzuk pasatu arte zelako markak lortu dituen elgoibartarrak: 514 partidu ofizial jokatu ditu, Athleticen historia luzean gehien jokatu duen hirugarren jokalaria da, Iribar eta Txetxu Rojoren atzetik.

Niretzako, Caparrosek aurten hartu duen erabaki txarretarikoa bat izan da oso gutxi kontatu duela Josebagaz. Bera oso argia eta listoa da, eta bere aportazioa txikia izan arren, momentu puntual batzuetan interesgarria izan zitekeen. Eta argi, egunen batean Athleticen aulkiaren jabea bera izango da-eta.

Bigarren omenaldia Elorrio taldearentzako da. Urte guztietan bigarren mailako zulo horretatik ateratzeko atzetan gelditu arren, oraingoan abiadura hartu dute eta ez da egon gelditu dituenik: bi denboralditan bi maila igo dituzte.

Izugarri lehiatu dute guztiek, bai jokalariek, bai entrenatzaileak, eta baita zuzendaritzak ere. Aurtengoa, gainera, lurretarekin borrokatu dute azken unera arte. Pena da Jon Gurutz Vazquezen mutilak saririk gabe geratzea, merezi zuten-eta, denboraldi oso ona osatu dutelako. Kontuan eduki behar da, baita ere, jokari gehienak bertakoak direla eta horrek oraindik balio handiagoa duela.

Hurrengo urteko helburua ez dakit zein izango den, baina mailaz igotzea planteatuz gero, agian...

Adituarentxokoa

Kataluniak irabazi zuen Nazioen Arteko Torneoa Durangon



Kataluniak irabazi du aurten Durangon ospatutako Nazioen Arteko Torneoa. Finalean 76-52 menderatu zuen Galizia. Kataluniak 79-52 kanporatu zuen finalerdietan Lituania. Galziak, berriz, Euskadiko Selekzioa kanporatu zuen (44-62). Azkenean, Euskadi hirugarren geratu zen. ■ J.D.

Open
KLUB
1996

Fitness, Wellness & Sport center

MATRIKULATZEKO EPEA ZABALIK

94 620 12 77 - 94 620 12 61
www.openklub.com

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyelexpe.biz

Arrike
Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

Betikoak
flexografia

ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

“Aurtengo denboraldia aurrekoak baino lasaiago hartzea erabaki dut”



Anboton iazko marka hobetzea lortu zuen Azkorbebeitiak.

Oihana Azkorbebeitia podiumera igo da Anboto Kilometro Bertikalean eta Zegama-Aizkorreko mendi maratoian. Sasoiko dago, baina aurten denboraldia patxada handiagoagaz hartuko du. ‘Hiru Handiak’ osatzea du helburu nagusia.

Kilometro Bertikalen Zirkuituko lehenengo proba Anbotokoa izan zen eta bigarren amaitu zenuen. Gustura emaitzagaz?

Oso gustura. Hirugarren bider korritu nuen. Lehenengoan lokatz asko egon zen, eta aurten ere ibilbidea halaxe egongo zela esaten zuten, baina ez da hain besterako izan.

Itxaroten zenuen hain aurrean ibiltzea?

Ez. Estatu osotik korrikalari asko etorri zen eta, esaterako, hirugarren egin zuen Monica Ardid Europako Kilometro Bertikalen txapelduna da. Nire helburua iazko denbora hobetzea zen, eta hori lortu nuen.

51 minutu eta 43 segundo izan zen zure denbora. Hor inguruan zebiltzan zure kalkuluak?

Bai. Denbora hori baino apurtxo

bat gehiago egitea aurreikusten nuen, lokatza zegoela esaten zutelako. Azkenean iazkoa hobetu nuen, eta pozik nago.

Kilometro bertikalak ez dira ohiko lasterketa motak. Sarritan arinetan barik, oinez eta besoak izterretan ipinita joan behar izaten duzue.

Anbotokoa aldapa handia dauka, baina denak ez dira berdinak. Nerea Amilibiak Kilometro Bertikalen Espainiako Kopan parte hartu zuen iaz, eta lasterketa bat Palentzian jokatu zuen; Palentziakoak zortzi kilometroko luzera zuela esan zidan eta Anbotokoa ez da laura heltzen. Beraz, Palentzian tramu batzuetan korrika egin daiteke; Anboton Zabaletara orduko oinez ibili beharra dago. Igoera guztiak ez dira berdinak, bakoitzak bere ezaugarriak dauzka.

Zegama-Aizkorri mendi maratoian hirugarren amaitu eta berriro podiumera igo zinen.

Klimatologia aldetik proba berezia izan da aurtengoa: lokatza, hotza, euria... eta puntan, Aizkorri, elurra zegoen. Parte hartzen nuen laugarren aldia zen, eta behin ere ez dut horrelako baldintzarik topatu.

Ondo egokitu zinen baldintza horietara.

Niri oso ondo etorri zitzaidan. Zenbat eta denbora eskasagoa, hobeto niretzako; horrelako baldintzetan ematen dut errendimendurik handiena.

“Zegama-Aizkorri lasterketan eguraldi txarra egin zuen, eta ni ondo ibiltzen naiz baldintza horietan”

Irteera puntuan zu izango zinen pozik zegoen bakarrenetakoa.

Ezker-eskuma begiratu eta denak zeuden elastiko luzeekin eta zirekin goraino estalita; ni, berriz, elastiko laburrekin nengo. Iazko denbora baino minutu bat gehiago egin nuen, baina denok ere zutunik ibiltzeko zelako arazoak eduki genituen kontuan hartuta, oso pozik nago nire denboragaz.

